EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2019

## HEZKUNTZA


1. Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta laguntzak .................... 4
2. Garraiatzeko banan banako diru-laguntzak 2018/2019 .................................................... 6
3. Diru laguntza, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal jabetzako eraikinetan obra egiteko gastuak fiinantzatzekoa (Udalaguntza-2019) ............................ 7
4. Hezkuntza-premia bereziko ikasleak eskolatzen dituzten hezkuntza laguntzako espezialistak kontratatu behar dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzako, laguntza eskaera ........................................................................................................................ 9
5. Ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duten eta ohiko eskola-garraioa erabili ezin duten ikasleentzat banakako diru-laguntza, 2019-2020 ikasturtean ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatuta daudenak .................. 11
6. Irakasleen etengabeko prestakuntzarako plana: 2019an irakasleentzako jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako deialdia ........................................... 13
7. Irakasleen prestakuntzarako plana – prestakuntza /bikaintasuneranzko prestakuntza itunpeko ikastetxeetan 2019-2020 ................................................................................. 14
8. Irakasleen prestakuntzarako plana – ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuak, itunpeko sarean, 2019-2020 ikasturtetarako ............................. 16
9. Unibertsitate aurreko euskarazko ikasmaterial inprimatuentzako laguntza-bidea (EIMA 1) ........................................................................................................................ 18
10. Unibertsitate aurreko irakasmailetako euskarazko ikasmaterial digitalak diruz laguntzako programa (EIMA 2.0) ........................................................................................ 19
11. Unibertsitate aurreko euskarazko ikasmaterialak sortzeko edota egokitzeko laguntza-bidea (EIMA 4) ........................................................................................................ 20
12. Itunpeko ikastetxeetako hizkuntza normalizazioko proiektuetarako deialdia (Ulibarri) .... 21
13. Nolega deialdi bateratua 2019-20 .................................................................................. 23
14. Irale-pribatuak. Irale programaren baitan 2019. urtean irakastordu barneko ikastaroren batean jarduteko irakasleak liberatu nahi dituzten ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezkoentzako laguntzetarako dei egiten duena .................................................... 25
15. Atzerrian alemaneko, frantseseko eta ingeleseko ikastaroak egiteko plazak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleentzat ......................................................................................... 26
16. Postu-deialdia, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek ingelesean murgiltzeko egonaldiak garatzeko ................................................................................................... 28
17. Gailu digitalak eskuratzeko dirulaguntzak (2019-2020ko ikasturtea). Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiten ari diren ikasleak baliatu ahal izango dira gailu horietaz ................................................. 29
18. Laguntzak, 2019-2020 ikasturtean eskolatze osagarriko programak garatzekoak .......... 31
19. Laguntzak Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jardun nahi duten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat. Helburua: ijito ikasleentzako hezkuntza-jarduerak garatzea eskola-esparruan.................................................................................................................... 32
20. Laguntzak helduen hezkuntzako ikasleen elkarteentzat eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteentzat ......................................................... 34

21. Laguntzak unibertsitateaz besteko ikastetxeak euren titularitatearen pean dituzten irakaskuntza-kooperatibentzat ........ 35
22. Laguntzak unibertsitatez besteko ikasleen guraso-elkarteen federazio eta konfederazioentzat ........ 36
23. Laguntzak EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxeentzat, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarduera-proiektuak egin ditzaten, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko ........ 37
24. Laguntzak Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoei parte har dezaten baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko Sare_Hezkuntza gelan izeneko berrikuntza-proiektuan ........ 39
25. Ikasle etorkinentzat kulturartekotasuna sustatzeko programak eta ikasle sartu berrien hizkuntza sendotzeko programak garatzeko dirulaguntzak ........ 41
26. Musika-ikastegientzako diru-laguntzak ........ 44
27. 2019-2020 ikasturterako laguntzak, zero eta hiru urte arteko umeentzako titulartasun pribatuko haur-eskolentzat ........ 47
28. 2019-20 ikasturterako laguntzak, zero eta hiru urte arteko umeentzako titulartasun pribatuko haur-eskolentzat ........ 49
29. Laguntzak ikastetxe pribatuentzat, lanbide heziketako heziketa zikloak eskaintza partzialean irakasteko ........ 51
30. Dirulaguntzak lanbide-heziketa dualeko programak garatzeko ikas-ekinezko erregimenean, lanbide-heziketako heziketa-zikloak irakasten dituzten euskal autonomia erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan ........ 53
31. lanbide heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuen ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko dirulaguntzak ........ 55
32. Enpresako egonaldia luzatzeko bekak, lantokiko prestakuntzako modulua irailetik martxora bitartean egiten duten lanbide-heziketako ikasleentzat, 2019-2020ko ikasturtean ........ 57
33. Laguntza ekonomikoak lanbide heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten ikastetxeentzat, prestakuntza proiektuak egiteko ........ 59
34. Laguntzak, bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak arautzeko uztailaren 23ko 118/2019 dekretuan aurreikusitakoak ........ 60
35. Laguntzak ikaskuntzarako KA1 mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko, Lanbide Heziketaren eremuan, ERASMUS + programaren esparruaren barruan ........ 62
36. Laguntza ekonomikoak heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatuei, 2018-19 ikasturtean zehar, atzerriko hizkuntza indartzeko, lanbide heziketako ikasleen artean... 64
37. Laguntza ekonomikoak heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatuei, Lanbide Heziketako V. Planean zehaztutako estrategiari jarraitzen dioten berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektuak egiteko, 2019-20 ikasturtean ........ 66
38. Laguntza ekonomikoak heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatuei, 2019-20 ikasturtean, Lanbide Heziketako V. Euskal Planaren barruan eremu estrategikoetako jarduera-ildoak garatzeko ........ 68
39. Laguntza ekonomikoak lanbide heziketako Ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzeko, 2019-20 ikasturtean ........ 71
40. Laguntza ekonomikoak ikastetxe itunduetako lanbide heziketako irakasleak zientziaren eta teknologiaren arloetan egunean jartzeko, 2019ko urtean ........ 73
41. Beka orokorrak, elbarrituentzako bekak eta bikaintasun akademikoko bekak ........ 75
42. Nazioartean unibertsitate ikasleak mugitzeko dirulaguntzak ........ 78

43. Ikasiker lankidetza bekak ........ 80
44. Doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programako laguntzak .. 81
45. Doktoreak diren ikertzaileentzako doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako laguntzak ........ 83
46. Ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroez bestelakoetan egonaldiak ........ 85
47. Kongresuak eta zientzia-bilerak egiteko laguntzak ........ 87
48. Ikertzaile doktoreentzako mugikortasun programa ........ 89
49. Oinarrizko edo/ta aplikatutako ikerketa proiektuaketa linkidetzako proiektuak ........ 90
50. Unibertsitate-enpresa proiektuak ........ 92
51. Ekipamendu zientifikoa ........ 94
52. Euskadi Ikerketa Saria ........ 96
53. Oxfordeko Unibertsitatean ikertzaile bisitari izateko diru-laguntzaren deialdia (basque visiting fellow programa 2019) ........ 97
54. Euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak bultzatzeko dirulaguntzak .... 99

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta laguntzak**

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko irailaren 5ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako deialdia egiten duena 2018-2019 ikasturterako. 2018ko EHAA, 178. Zk.

AGINDUA, 2019ko irailaren 24koa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako deialdia egiten duena 2019-2020 ikasturterako. 2019ko EHAA, 184. zk.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

2018/2019 Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/09/1804527e.shtml
2019/2020 Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/09/1904413e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dauden muga edo desorekak berdintzera bideratutako neurriak hartzea hezkuntzara berdintasun egoeran iritsi ahal izateko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2018/2019 ikasturteko deialdiaren onuradunak: 127.947 unibertsitateaz kanpoko ikasleak. (Aurreikusia: 127.000).

| **Banakapena** | **2018/19 ikasturtea** |
|---|---:|
| Ikasmateriala | 125.528 |
| Irakaskuntza | 2.737 |
| Joan-etorriak | 3.394 |
| Egoitza | 54 |
| Jantokia | 57.247 |
| **Guztira** | **188.960** |

2019ko ekitaldiko aurrekontua %81a betearazi da: alde batetik, 2018/2019 ikasturteko deialdiko zati bat finantzatzeko eta, bestetik, 2019-2020 ikasturteko deialdiko beste zati bat.

2019/2020 ikasturteko deialdia bukatu gabe dago: zati bat ebatzi eta finantzatu da 2019ko ekitaldiko aurrekontuaren kontura, eta ebatzi gabe dagoena 2020ko ekitaldiko aurrekontuaren kargura finantzatuko da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikasle onuradunak | 127.000 | 127.947 |
| Laguntza kopurua | 191.000 | 188.960 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Garraiatzeko banan banako diru-laguntzak 2018/2019**

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko abenduaren 18koa, Hezkuntzako sailburuarena, Haur Hezkuntzako (2. zikloa), Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleak eskolara garraiatzeko banakako esleipenetarako deialdia egiten duena 2018/2019ko ikasturterako. EHAA 249 zenbakia 2018ko abenduaren 28koa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806383e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Sailak antolatutako eskola-garraio zerbitzura egokitzen ez diren eta garraiatzeko eskubidea duten sare publikoko ikasleen eskola-garraioa diruz laguntzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurrekontuaren %72,01 gauzatu da. 2019ko aurrekontu-ekitaldiko behin betiko datuak honako hauek dira:
Emandako diru-laguntzen kopurua: 1.604
Emandako diru-laguntzaren batez bestekoa: 448,96 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
| --- | --- | --- |
| Ikasle onuradunak | 2.000 | 1.604 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Diru laguntza, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal jabetzako eraikinetan obra egiteko gastuak fiinantzatzekoa (Udalaguntza-2019)**

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko abenduaren 18koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, iragartzen da hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuak finantzatzeko deialdia (Udalaguntza-2019).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2019/udalaguntza/y22-izapide/eu/

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

a) Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 232 artikuluan adierazitakoak, lehen ezarpeneko, kontserbazioko eta mantentze obrak izan ezik.
b) Otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretua betetzea helburua dutenak. Errege-dekretu horren bidez ezartzen dira Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza ematen duten zentroen gutxieneko baldintzak.
c) Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea betetzea helburu dutenak, eta baita 173/2010 Errege Dekretua betetzea ere, otsailaren 19koa, Eraikingintzaren Kode Teknikoa (martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutakoa) aldatzen duena, desgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasunari eta ez-diskriminazioari dagokionez.
d) Jolastokiak sortu edo hobetzeko obrak, baita ikasgelak sortu edo eraberritzekoak ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

304 diru-laguntza eskaera onartu dira, 95 udaletxeek egin dituzte eskaerak, 165 ikastetxeetan obrak egiteko. Finantziazioaren zenbateko osoa 5.999.699,48 €, izan delarik.

| LH | Udaletxe onuradunen kopurua | Ikastetxe onuradunen kopurua | Eskabide kopurua | Diru-laguntzak (eurotan) |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 16 | 36 | 64 | 813.146,01 € |
| Bizkaia | 42 | 82 | 175 | 3.136.993,74 € |
| Gipuzkoa | 37 | 47 | 68 | 2.049.559,73 € |
| **Guztira** | **95** | **165** | **304** | **5.999.699,48 €** |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Udaletxe onuradunak | 100 | 95 |
| Ikastetxe onuradunak | 174 | 165 |
| Eskabide kopurua | 325 | 304 |
| Diru-laguntzak | 6.000.000,00 € | 5.999.699,48 € |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Hezkuntza-premia bereziko ikasleak eskolatzen dituzten hezkuntza laguntzako espezialistak kontratatu behar dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzako, laguntza eskaera**

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko uztailaren 30eko, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez laguntzak iragartzen baitira hezkuntza-premia bereziko ikasleak eskolatzen dituzten eta 2019-2020 ikasturterako Hezkuntza Laguntzako Espezialistak kontratatu behar dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/08/1903851a.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza programa hau hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei laguntzak ematera bideratuta dago, eta honako helburu hauek ditu:

- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntza-erantzuna emateko aukera ematea, curriculumean sartzeko laguntza behar badute eta haien autonomia bultzatzen badute.
- Itunpeko ikastetxe pribatuei diru-laguntzak ematea, hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatu ahal izateko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lortutako emaitzen inguruan datoak, honako hauek dira:

- Lanpostuen kopurua (bataz beste asteko 26 ordu): 587
- Ikastetxeen kopurua: 219
- Ikasleen kopurua: 1.661

Aurrekontua gauzatzea: 14.382.521,90€ zegoen aurrekontuan, eta ia osorik gauzatzen ari da.

Erabilgarritasuna eta gizarte-eragina: deialdiak itunpeko irakaskuntzako 219 ikastetxeren eta 1.661 haurren beharrak bete ditu, eta hezkuntza-aukeren berdintasuna eman zaie, bai eta aurrerapen akademiko eta pertsonalerako behar dituzten laguntzak ere, hezkuntzarako aurreikusitako helburuak lortzeko.

Curriculumean eta autonomian laguntza-premiak dituzten pertsonei egokitutako testuingurua eraikitzen laguntzeko deialdia, desberdintasunak artatuko dituena eta talde edo pertsona ahulek behar dituzten berariazko laguntzak eta laguntzak bermatuko dituena, ikasten duten hezkuntza-sarea edozein dela ere.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| | Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|---|
| | **Ikastexeak** | **Eskatutako orduak** | **Emandako orduak** |
| ARABA: | 30 | 3.763,5 | 2.633,5 |
| GIPUZKOA: | 78 | 5.639 | 5.273,5 |
| BIZKAIA: | 111 | 8.264,5 | 7.354,5 |
| **GUZTIRA:** | **219** | **17.667** | **15.261,5** |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duten eta ohiko eskola-garraioa erabili ezin duten ikasleentzat banakako diru-laguntza, 2019-2020 ikasturtean ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatuta daudenak**

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko ekainaren 12koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez eskola-garraiorako banakako dirulaguntzetarako deialdia egiten baita desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala duten ikasleentzat, baldin eta eskolatuta badaude etxebizitzaren arabera dagokien ikastetxe publikoan edo Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak esleitutako itunpeko ikastetxe pribatu batean eta ezin badute saileko eskola-garraioa erabili.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/07/1903264e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Elbarritu ikasleentzat garraiorako finantzaketa.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak: desgaitasuna duten 1.006 ikasleren eskola-garraioaren beharrei erantzun zaie. Ikasle horiek ezin dute sailak antolatutako garraio arrunta erabili, ikasle horiek eskatutako ibilbideak betetzen ez dituelako edo behar diren egokitzapenak ez dituelako. Ikasle onuradunek ingurune eta baliabide profesional espezializatuak eta beren behar espezifikoetara egokituak behar dituzte, eta, batzuetan, beren bizilekuari dagokion eskola-barrutian ez dauden ikastetxeetan (publikoak edo itunduak) eskolatu behar dituzte.

| 2019-2020 | **Ikastetxe publikoak** | | **Ikastetxe itunduak** | | **GUZTIRA** | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Zenbatekoa** | **Ik.** | **Zenbatekoa** | **Ik.** | **Zenbatekoa** | **Ik.** | **Zentroak** |
| **Araba** | 253.726,95 € | 52 | 30.607,50 € | 3 | 284.334,45 € | 55 | 21 |
| **Bizkaia** | 614.691,23 € | 239 | 1.356.752,34 € | 373 | 1.971.443,56 € | 612 | 88 |
| **Gipuzkoa** | 285.239,19 € | 141 | 759.603,93 € | 198 | 1.044.843,12 € | 339 | 37 |
| **GUZTIRA** | 1.153.657,37 € | 432 | 2.146.963,77 € | 574 | **3.300.621,13 €** | **1.006** | **146** |

Aurrekontuaren exekuzioa: aurrekontuan 3.430.000 € zeuden eta 3.300.621,13 €exekutatu dira.

Erabilgarritasuna eta inpaktu soziala: deialdiak desgaitasunen bat duten unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikasle guztien eskola-garraioaren beharrak bete ditu, baldin eta garraio hori beteta ez

bazuten eta baldintzak betetzen bazituzten; beraz, kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukera eman da, baldintza ekonomikoak beste oztoporik sortu gabe.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikasle kopurua: | 940 | 1.006 |
| • Ikastetxe publikoetako ikasleak: | | 432 |
| • Itunpeko ikastetxeetako ikasleak: | | 574 |
| Zentro kopurua: | | 146 |
| • Ikastetxe publikoak: | | 117 |
| • Itunpeko ikastetxeak: | | 29 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Irakasleen etengabeko prestakuntzarako plana: 2019an irakasleentzako jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako deialdia**

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko uztailaren 17koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntzen deialdia iragartzen baita hezkuntza-komunitatea prestatzeko eta, bereziki, irakasleak etengabe prestatzeko eta pedagogia eta didaktika eguneratzeko jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA.

EBAZPENA, 2019ko urriaren 25ekoa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena. Honen bidez, diru-laguntzen deialdia egiten zaie irabazi-asmorik gabeko erakundeei, baldin eta 2019an jarduerak egiten badituzte irakasleak etengabe prestatzeko eta pedagogia eta didaktika eguneratzeko.
(EHAAn argitaratzea tramitazio prozesuan dago).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa honen helburua hau da: laguntza ekonomikoak ematea Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleentzako prestakuntza-jarduerak (jardunaldinak, elkarraldiak, mintegiak...) egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarte eta federazio edo erakundeei.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Honako hauek dira deialdiren emaitzak, aurrekontua exekutatzea barne:

| Eskaeren kopurua | Onartuak | Ezezkoa hartu dutenak | Aurrekontu diru-hornidura | Esleitutako diru-laguntzen zenbatekoa |
|---|---|---|---|---|
| 17 | 12 | 5 | 100.000,00 | 90.770,00 |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Erakundeen kopurua: | 10 | 12 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Irakasleen prestakuntzarako plana – prestakuntza /bikaintasuneranzko prestakuntza itunpeko ikastetxeetan 2019-2020**

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko martxoaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egi¬ten baitzaie unibertsitateaz kanpoko ikasketak –heziketa-zikloak izan ezik– ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoei hezkuntza-bikaintasuneranzko prestakuntza-proiektuak egin ditzaten, 2019-2020ko ikasturtean (L1. Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA

EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 14koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, zeinaren bitartez argitaratzen baitira 2019ko martxoaren 26ko Aginduaren babespean emandako dirulaguntzak, jendeak horren berri izan dezan.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Finantzaketa ematea hezkuntza-bikaintasunerantz bideratutako prestakuntza-proiektuei, unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat, heziketa-zikloak izan ezik. Itunpeko sareko ikastetxeetan eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoetan egingo dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Hasierako diru-hornidura 480.000 € izan zen, eta deialdi honetan guztira 216.610,00 €-ko dirulaguntza eman zen urte hauetan:

| | |
|---|---|
| 2019 (%70) | 151.627,00 |
| 2020 (%30) | 64.983,00 |

Modalitate bakoitzeko lurralde-banaketa honako hau da:

| | 2019-2020 “Bikaintasunerantz” deialdiaren diru-hornidura | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Lurraldea** | **P.Integralak** | **Curriculuma aberasteko P.** | **Berrikuntzarako prestakuntzarako p.** | **Guztira** |
| Araba | 16.000,00 | 8.000,00 | 56.000,00 | 80.000,00 |
| Bizkaia | 50.000,00 | 12.000,00 | 165.000,00 | 227.000,00 |
| Gipuzkoa | 38.000,00 | 10.000,00 | 125.000,00 | 173.000,00 |
| **Guztira** | **104.000,00** | **30.000,00** | **346.000,00** | **480.000,00** |

| | Modalitateen esleipena | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Lurraldea** | **P.Integralak** | **Curriculuma aberasteko P.** | **Berrikuntzarako prestakuntzarako p.** | **Emandako zenbateko osoa** |
| Araba | 8.000,00 | 6.000,00 | 22.000,00 | 36.000,00 |
| Bizkaia | 33.610,00 | 16.000,00 | 50.000,00 | 99.610,00 |
| Gipuzkoa | 19.000,00 | 6.000,00 | 56.000,00 | 81.000,00 |
| **Guztira** | **60.610,00** | **28.000,00** | **128.000,00** | **216.610,00** |

Guztira, 88 proiektu onartu ziren. Honela banatu ziren onetsitako proiektuak, lurraldea eta modalitatea kontuan hartuta:

| **Lurraldea** | **P.Integralak** | **Curriculuma aberasteko P.** | **Berrikuntzarako prestakuntzarako p.** |
|---|---|---|---|
| Araba | 4 | 4 | 11 |
| Bizkaia | 14 | 7 | 25 |
| Gipuzkoa | 10 | 3 | 28 |
| **Total** | **28** | **14** | **64** |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Berrikuntza-proiektu integralak: | 27 | 28 |
| Curriculuma aberasteko proiektuak: | 15 | 14 |
| Berrikuntzarako prestakuntzarako proiektuak | 82 | 64 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Irakasleen prestakuntzarako plana – ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuak, itunpeko sarean, 2019-2020 ikasturtetarako**

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko apirilaren 8koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntzetarako deialdia egiten zaie unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuen fede¬razio eta elkarteei, prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2019-2020 ikasturtean, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotuta.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA

EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 14koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, zeinaren bitartez argitaratzen baitira 2019ko apirilaren 8ko Aginduaren babespean emandako dirulaguntzak, jendeak horren berri izan dezan.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Finantzaketa ematea ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzera bideratutako hezkuntza-prestakuntzako eta -berrikuntzako proiektuei. Horietan unibertsitateaz kanpoko irakasleek, heziketa-zikloak kenduta, parte hartzen dute eta itunpeko sareko ikastetxeetan eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoetan egiten dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdiari esleitutako 1.332.000 euroko aurrekontu-zuzkidura (444.000 euro 2019ko ekitaldirako eta 888.000 euro 2020ko ekitaldirako) agortu egin da eta honela banatu da:

| Elkartea/Federazioa | Diru-laguntza |
|---|---:|
| Kristau Eskola | 894.828,00 |
| Eusko Ikastola Batza | 114.533,00 |
| Euskal Herriko Ikastolak | 280.948,00 |
| AICE | 24.403,00 |
| Ikasgiltza | 17.288,00 |
| **Total** | **1.332.000,00** |

Itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteei zuzentzen du deialdiak. Honela banatzen dira proiektu horietan parte hartu duten ikastetxe eta irakasleak, elkarteen **edo** federazioen arabera:

| Elkartea/Federazioa | Zentroak | Parte hartu duten irakasleak |
|---|---|---|
| Kristau Eskola | 94 | 3.698 |
| Eusko Ikastola Batza | 10 | 470 |
| Euskal Herriko Ikastolak | 57 | 1.926 |
| AICE | 8 | 264 |
| Ikasgiltza | 7 | 311 |
| **TOTAL** | **176** | **6.669** |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Proiektu eleanitzak itunpeko ikastetxeetan, A modalitatea: | 144 | 104 |
| Proiektu eleanitzak itunpeko ikastetxeetan, B modalitatea: | 23 | 72 |

1 Dirulaguntza-programaren izenburua

**Unibertsitate aurreko euskarazko ikasmaterial inprimatuentzako laguntza-bidea (EIMA 1)**

2.- Araua

Agindua, 2019ko uztailaren 30koa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterialak sortu eta editatzeko dirulaguntza deialdia egiten duena (EIMA deialdia)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

- Agindua EHAAn argitaratu, 2019/08/12an.
- Ebazpena, 2019ko abenduaren 17koa:

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001357e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Unibertsitate aurreko ikasmailetarako euskarazko ikasmaterial inprimatuak produzitu, argitara eman eta zabalkundea izan dezaten sustatze-lana egin eta laguntza eskaintzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurkeztutako eskabide-orriak: 182

Diruz lagundutako ikasmaterialak: 178

Dirulaguntza jaso duten argitaletxeak: 10

Aurrekontuan zegoen diru kopurua: 500.000 €

Esleitutako diru kopurua: 500.000 €

Gizarteko eragin-gune nagusiak: Unibertsitate aurreko irakasmailetako ikasle-irakasleak

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Diruz lagundutako ikasmaterialak | 85 | 178 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Unibertsitate aurreko irakasmailetako euskarazko ikasmaterial digitalak diruz laguntzako programa (EIMA 2.0)** |

2.- Araua

| |
|---|
| Agindua, 2019ko uztailaren 30koa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterialak sortu eta editatzeko dirulaguntza deialdia egiten duena (EIMA deialdia) |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| - Agindua EHAAn argitaratu, 2019/08/12an<br>-Ebazpena, 2019ko abenduaren 17koa:<br>https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001356e.shtml |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Unibertsitate aurreko ikasmailetarako euskarazko ikasmaterial digitalak sortu, argitara eman eta zabalkundea izan dezaten sustatze-lana egin eta laguntza eskaintzea. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Aurkeztutako eskabide-orriak: 27<br>Diruz lagundutako ikasmaterialak: 14<br>Dirulaguntza jaso duten produkzio-etxeak: 10<br>Aurrekontuan zegoen diru kopurua: 360.000 €<br>Esleitutako diru kopurua: 360.000 €<br><br>Gizarte alorreko eragin-gune nagusia: Unibertsitate aurreko irakasmailetako ikasle-irakasleak. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Diruz lagundutako ikasmaterialak | 12 | 14 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Unibertsitate aurreko euskarazko ikasmaterialak sortzeko edota egokitzeko laguntza-bidea (EIMA 4)**

2.- Araua

Agindua, 2019ko uztailaren 30koa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterialak sortu eta editatzeko dirulaguntza deialdia egiten duena (EIMA deialdia)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

- Agindua EHAAn argitaratu, 2019/08/12an
- Ebazpena, 2019ko azaroaren 13koa: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001355e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Unibertsitate aurreko ikasmailetarako ikasmaterialen sorkuntza-lana bultzatzea eta materialon produkzioa, argitalpena eta zabalkundea bermatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurkeztutako eskabide-orriak: 29
Diruz lagundutako ikasmaterialak: 28
Diru-laguntza jaso duten argitaletxe/lantaldeak: 10
Aurrekontuan zegoen diru kopurua: 125.000 €
Esleitutako diru kopurua: 125.000 €

Gizarteko eragin-gune nagusia: Unibertsitate azpiko irakasmailetako ikasle-irakasleak

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Diruz lagundutako ikasmaterialak | 25 | 28 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Itunpeko ikastetxeetako hizkuntza normalizazioko proiektuetarako deialdia (Ulibarri)**

2.- Araua

84/2019 Dekretua, ekainaren 11koa, Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri programa arautzen duena.
AGINDUA, 2019ko irailaren 10koa, Hezkuntzako sailburuarena, ULIBARRI programak itunpeko ikastetxeentzat 2019-2020 ikasturtean izango dituen gehienezko diru-baliabideak, programan sartzeko eta jarraitzeko baldintzak eta ikastetxe bakoitzak programarako izango dituen dedikazio-orduak zehazten dituena.

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 2koa, Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita zein itunpeko ikastetxek jarraituko duten Ulibarri programan, zeintzuk sartuko diren 2019-2020 ikasturtean, zein ordu-kopuru dagokien, eta zein itunpeko ikastetxek utzi duten programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/o/2019/09/10/(1)/dof/eus/html/
https://www.euskadi.eus/contenidos/resolucion_definitiva/res_2019_000_0173213/eu_def/adjuntos/ulibarri%2019_20%20ebazpena%20eta%20eranskinak.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako Hizkuntza Normalkuntzako Proiektuen garapenean partaide diren eragileen lankidetzak osatzen du programa hau. Eragile horiek administrazioak, ikastetxe pribatuak eta bestelako instituzioak dira.

Ulibarri programak eta bertan arituko diren ikastetxeek izango dituzten baliabideak finkatzen ditu agindu honek; baita programan sarbidea eskatu nahi duten ikastetxeentzako prozedura eta baloratzeko irizpideak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019an 245.000 euroko ezarpena egin ziren 19-20 ikasturteko hasierako ordainketa egiteko, eta 980.000 euroko aurrekontua baliatu zen 19-20 ikasturteko bigarren ordainketa egiteko.

Behin esleipenak egin eta gero, ikastetxe bakoitzari dagokiona bi zatitan ordaintzen zaie: ikasturte hasieran, ebazpena atera eta gero, laguntzaren % 20, eta ikasturtearen bukaeran, ikasturteko ekimenen urteko memoria eman eta gero, gainerako % 80a. (Deialdiak berak dio horrela egin behar dela).

Hizkuntza Normalkuntzako proiektuak eman dituen emaitzak honakoak dira parte hartzaileak direla eta:

- 17.000 irakasle inguru.

- 409 ikastetxe (horietatik 175 itunpekoak)
- 181.000 ikasle inguru

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikastetxe kopuru | 167 | 175 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Nolega deialdi bateratua 2019-20**

2.- Araua

Agindua, 2019ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, itunpeko ikastetxe pribatuetako giroa euskalduntzeko 2019-2020 ikasturterako laguntza-deialdia zabaltzen duena. (EHAA, 2019/08/30)

Itunpeko ikastetxeentzako agindua, Egoitza Elektronikoko iragarki taulan argitaratzen dena: Ebazpena, 2019ko azaroaren 11koa, Hezkuntza sailburuordearena; 2019-20 ikasturterako itunpeko ikastetxeen eskola giroa euskalduntzeko dirulaguntzak ebazten dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia: https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2019/nolega/web01-tramite/eu

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

NOLEGA DEIALDI BATERATUA 2019-20 deialdi berri honek jarduera hauek begiesten ditu:

a) Ikastetxeetan hizkuntzaren ahozko erabilera egoera ez formaletan bultzatu eta eskola-giroa euskaldundu asmoz egiten diren saio-jarduerak: eskola Antzerkigintza, Bertso-lanketa, Kantagintza, Irratigintza, bestelako ahozko lanketa digitalak edota Kontalaritza.
b) Euskal giro batean bizipena eskaintzeko asmoz antolatutako egonaldi-irteerak.
c) Euskararen erabilera sustatzeko jarduerak:
   - Ikastetxe barruan arlo akademikotik at euskaraz bizitzeko helburuarekin prestatutako jarduerak.
   - Guraso, langile ez-irakasle edota irakasleentzat antolatutako berariazko jarduerak, beti ere ikasleen erabilera areagotzea dutenean helburu.
   - Erabilera areagotzearekin lotutako ikasleen antolamenduzko jarduerak: hizkuntza paisaia; liburutegia; idatzizko arauak

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019-2020ko deialdia egiteko, 190.000 euroko aurrekontua zuten itunpeko ikastetxe pribatuek.

Deialdiaren arabera, ordainketa bakarra egiten zaie urtero eskolei, kurtso hasieran, ebazpenean adierazten den diru-kopuruarekin. Diru-kopuru hori guztia erabiltzen da eskola guztien artean banatzen delako, eta guztiei, lortutako puntuazioa kontuan hartuta, tokatzen zaiena ematen zaie.

Guztira 183 itunpeko zentrok parte hartu dute. Hona hemen atalez ataleko datuak:

| | |
|---|---|
| Ahozko adierazmena | 93.646 ikasle |
| IKE: | 276.974 ikasle |

| | | |
|---|---|---|
| EGE | 19.444 | ikasle |
| IKABIL | 423 | ikasle |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikastetxe kopurua (Ikastetxe publikoak barne): | | |
| • Ahozko adierazmena: | 461 | 478 |
| • IKE | 398 | 433 |
| • EGE: | 209 | 218 |
| • IKABIL: | 17 | 19 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Irale-pribatuak. Irale programaren baitan 2019. urtean irakastordu barneko ikastaroren batean jarduteko irakasleak liberatu nahi dituzten ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezkoentzako laguntzetarako dei egiten duena** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2019ko apirilaren 30ekoa, Hezkuntza sailburuarena.. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?R01HPortal=y22&R01HPage=bopv&R01HLang=eu&ed2019002271&BOPV_HIDE_CALENDAR=true |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| 2019. urtean IRALE programaren irakastordu barneko ikastaroren batean ikasketari gisa ari den irakaslerik duten ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezkoei dei egiten zaie, aipatu irakasleen ordezkatzek sortutako gastuei aurre egiten laguntzea da programa horren xedea. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Irakasleen euskalduntzearen alorrean honako ikastaro hauek egin dira:

a) Irakastorduen barruko trebakuntza-ikastaroak:
   - 81 postu, ikastetxe pribatuetako irakasleentzako

b) Parte hartu duen ikastetxe-pribatuen kopurua: 77

Programa hau, 1.222.787,00 euroko diru kopuruarekin exekutatu da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Irakastorduaren barruko trebakuntza-ikastaroak: | | |
| Ikastetxe pribatuetako irakasleentzako liberatu kopurua: | | |
| Oinarrizko ikastaroak, urtebetekoak: | | 20 |
| Goi-mailako ikastaroak, hiruhilabetekoak: | | 61 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Atzerrian alemaneko, frantseseko eta ingeleseko ikastaroak egiteko plazak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleentzat** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2018ko urriaren 31koa, Hezkuntzako sailburuarena, atzerrian ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak egiteko plazetarako deialdia egiten duena, Euskal Autonomia Erkidegoaren funts publikoez finantzatzen diren ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleei zuzendua (L3. Elebitasuna, hezkuntza eleaniztunaren esparruan). (EHAA 2018.11.15) |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Programaren araua eta deialdia:<br>https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2018005614&BOPV_HIDE_CALENDAR=true<br><br>Emate-erabakia:<br>https://www.euskadi.eus/contenidos/resolucion_definitiva/res_hizkuntza_atzerri_2018/eu_def/adjuntos/resolucion_adjudicacion_verano_2019.pdf |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| 533 plaza deitu ziren Alemanian, Frantzian, Erresuma Batuan eta Irlandan, egonaldi eta ikastaroak egiteko 2019ko udan. Plaza horiek deitzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren funts publikoz sostengatzen diren ikastetxetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. maila eta Batxilergoko 1. eta 2. maila ikasten duten ikasleentzat.<br><br>Egonaldiaren kostuak, partez, Hezkuntza Sailak ordainduko ditu eta, partez, ikasleak. Egonaldi hauetan parte hartzen duen ikasleari ordaintzea dagokion zatia 170 eurokoa (1. Tartea) eta 680 eurokoa da (2. Tartea).<br><br>Honekin batera, egonaldiak antolatu eta kudeatzeko kontratua bideratu zen (C02/026/2018), Administrazioari dagokion aurrekontua 847.038 eurokoa izan zen. Hizkuntzak ikasteko ikastaroak antolatzeko lehiaketan, 19 plaza gehituko zaizkio Erresuma Batuari dagozkion plazei. Batxilergoko Aparteko Saria lortu duten 15 pertsonentzat eta matematika-olinpiadan lehen lau postuak lortu dituzten DBHko 2. mailako ikasleentzat izango dira plaza gehigarri horiek. Beraz, guztira 552 plaza dira. |

| |
|---|
| Kontzeptu hauek izango ditu deitutako plaza bakoitzak: joan-etorriko bidaia Euskal Autonomia Erkidegoaren hiru hiriburuetatik ikasleak egonaldia egingo duen herrialdera, bidaia-asegurua, egingo duen hizkuntza-ikastaroaren matrikula eta eskola-materiala, alojamendua, mantenu-gastuak eta ikastaroa emango den zentrorako hiri-garraioa. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| 4.611 eskabide jaso ziren.<br>Plaza guztiak eman ziren (552). Batxilergoko saria jaso zutenen arteko lau ikaslek plazari uko egin zioten; beraz, guztira 548 ikaslek egin zuten egonaldia. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikasle onuradunak: | 552 | 548 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Postu-deialdia, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek ingelesean murgiltzeko egonaldiak garatzeko** |

2.- Araua

| |
|---|
| EBAZPENA, 2018ko maiatzaren 22koa, Hezkuntza sailburuordearena, hainbat plaza eskaintzen dituena herri ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek hizkuntzan murgiltzeko egonaldiak egin ditzaten. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Programaren araua eta deialdia: Herri ikastetxeei zuzendutako atarian “Herri-ikastetxeak/Deialdiak” https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak/<br><br>Emate-erabakia: Herri ikastetxeei zuzendutako atarian “Herri-ikastetxeak/Deialdiak” https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak/ |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| 2.196 plaza betetzeko deia egitea. Plaza horiek herri ikastetxeetan matrikulaturik dauden Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzako dira. Deialdiaren helburua da ikasleek ingeles hizkuntzan murgiltzeko egonaldietan partea hartzea.<br><br>Egonaldiaren kostuak, partez, Hezkuntza Sailak ordainduko ditu eta, partez, ikasleak. Egonaldi hauetan parte hartzen duen ikasleari ordaintzea dagokion zatia 40 eurokoa da.<br><br>Honekin batera, egonaldiak antolatu eta kudeatzeko kontratua bideratu zen Administrazioari dagokion aurrekontua 467.000,00 eurokoa izan zen. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Ebazpena, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak 2018ko uztailaren 17an emandakoa, hizkuntzan murgiltzeko egonaldiak egiteko plazak ematen dituena.<br><br>2.196 plaza eman ziren. Horietatik 2.014 ikaslek egin zuten egonaldia. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikasle onuradunak: | 2.196 | 2.196 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Gailu digitalak eskuratzeko dirulaguntzak (2019-2020ko ikasturtea). Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiten ari diren ikasleak baliatu ahal izango dira gailu horietaz** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2019ko irailaren 10ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, zeinaren bidez diru-laguntzak iragartzen baitira gailu digitalak eskuratzeko, 2019-2020 ikasturterako. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiten ari diren ikasleak baliatu ahal izango dira gailu horietaz (L4 Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) (EHAA 2019.09.25). |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Programaren araua eta deialdia:<br>EHAA:https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019004358&BOPV_HIDE_CALENDAR=true<br><br>Emate-erabakia: Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan<br>https://www.euskadi.eus/contenidos/resolucion_definitiva/res_gailu_digitalak_2019_2020/eu_def/adjuntos/Gailu-Digitalak-2019-2020-Ebazpena.pdf |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Aurrekontua: 1.528.000,00 euro.<br><br>Eskatzaile bakoitzarentzako laguntza 200 (berrehun) eurokoa izango da gehienez, eta horretarako muga izango da justifikatutakoa gailu bakoitzaren fakturaren ordainagiriaren bidez.<br><br>Deialdi honetaz balia daitezke Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko 2019-2020ko ikasturteko ikasleak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko zein itunduetakoak, baldin eta eskakizun hauek betetzen badituzte:<br>a) Ikastetxea “sare_hezkuntza gelan” izeneko sarean egotea 2014-2015eko ikasturtetik aurrera.<br>b) Ikasle onuradunak unibertsitateaz kanpoko mailarako beketarako edo ikasketa-laguntzetarako deialdiko beka bat jaso izana 2018-2019 ikasturtean, eskola-materialaren atalean. Deialditik kanpo gelditzen dira Hezkuntzako sailburuaren 2015eko irailaren 30eko Aginduaren, 2016ko irailaren 26ko, 2017ko irailaren 28ko eta 2018ko uztailaren 18ko Aginduaren bidez araututako aurreko deialdietan Dirulaguntza hau bera jaso zuten ikasle bekadunak. |

c) Berdinak izatea laguntza-eskabideko gailu digitala eta ikastetxeak eskatzailearen talde osorako aukeratutakoa, eta gailu digitala 2018ko urriaren 3tik aurrera erosi izana.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Ebazpena, 2019ko abenduaren 30ekoa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, gailu digitalak eskuratzeko diru-laguntzetarako deialdia ebazten duena (2019-2020ko ikasturtea). Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiten ari diren ikasleak baliatu ahal izango dira gailu horietaz.

Ebazpen honen diru-zenbatekoa, guztira, miloi bat, laurehun eta berrogeita hamazazpi mila hirurehun eta laurogeita lau euro eta laurogeita sei zentimokoa da (1.427.608,09 €), ondoren zehazten den bezala banatuta:

| | Itunpeko ikastetxeak | Herri ikastetxeak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Araba | 134.800,00 | 92.600,00 | 227.400,00 |
| Gipuzkoa | 214.800,00 | 198.238,15 | 413.038,15 |
| Bizkaia | 528.720,95 | 258.448,99 | 787.169,94 |
| **Guztira:** | **878.320,95** | **549.287,14** | **1.427.608,09** |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikasle onuradunak: | 7.640 | 7.149 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laguntzak, 2019-2020 ikasturtean eskolatze osagarriko programak garatzekoak**

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko irailaren 10koa, Hezkuntza Sailburuarena, 2019-2020 ikasturtean eskolatze osagarriko programak baimentzeko eta diruz laguntzeko prozeduretarako deia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Agindua: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/09/1904282e.shtml
Ebazpena: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/01/2000067e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da hezkuntza-erantzuna ematea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei, eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan. Eskolatze Osagarriko Programen hartzaileak heziketa-prozesuan berariazko laguntza behar duten ikasleak dira. Izan ere, ikasle horien laguntza-premiak ezaugarri pertsonal larrietan edo eskola-historialean oinarritzen dira. Dena den, ikasleok programan sartu aurretik, agortuta izan behar dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak aniztasunari arreta emateko aurreikusita dituen neurri guztiak. Programa horiek zuzenean ezar ditzake hezkuntza-administrazioak edo, bestela, hezkuntzan esku hartzen duten beste erakunde eta entitateekin lankidetzan, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak har ditzakete aldi baterako, Hezkuntzari laguntzeko zerbitzuei jarraituz, baldin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren esparru orokorrean hartutako neurriak nahikoak izan ez badira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Ikasle jakin batzuen hezkuntza-premia berezien aurrean erantzuteko bide arrunt eta aparteko guztiak agortu ondoren eta zailtasun sozial bereziak edo eskolan moldatzeko zailtasun handiak dituzten ikasleei edota ikasleen kolektiboei erantzutearren, berariazko tratamendu bat hartu ahal izango da aparteko izaeraz, hain zuzen 2020an hamabost urte arteetako betetako ikasleei zuzendutako eskolatze-programa osagarrien bidez. Segida ematen zaio horrela sailaren jarduerari.

Hartara, 2019-20 ikasturtean, 19 talderentzat egin zen laguntza-deia, 1.212.000 euroko guztizko kopuruarekin. Gehieneko diru kopurua proiektuko 63.750 euro izan zen. Programa horiek oso emaitza onak eduki dituzte, aurreko deialdien memorietatik ondorioztatzen denez

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Onuradun proiektuak | 19 | 19 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laguntzak Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jardun nahi duten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat. Helburua: ijito ikasleentzako hezkuntza-jarduerak garatzea eskola-esparruan**

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko ekainaren 12koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dei egiten bai¬tzaie Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jardun nahi duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei eskola-esparruan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzeko 2019-2020 ikasturtean (IE2. Hezkuntza Inklusiboa eta Aniztasunaren Arreta)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1903081e.shtml
Emate-erabakia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/01/2000125e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lehen Hezkuntza gainditzen duten ijito ikasleen ehunekoa egonkortuta dago EAEko ikasleen batez bestekoaren oso azpitik; Bigarren Hezkuntzan, berriz, gorakadatxoa ikusten da, baina kontuan hartu behar da azken kolektibo horren abiapuntuek eta aurreko erreferentziek hutsaren hurrengo arrakasta erakusten dutela etapa horretan. Ikusten denez, gainera, Lehen Hezkuntzatik Bigarrenera igarotzeko unea heltzean, ikasle askok era guztietako zailtasunak izaten dituzte ikastetxeetara joateko. Ijito elkarteek egindako lana, guztiek ere ez baitute inplikazio-maila bera, ikastetxeen proposamenen araberakoa da, eta ondoren aipatzen direnen moduko hezkuntza-jarduerak hartzen ditu barnean:

- Gelaren barruko esku-hartzea: ikasleek klaseko martxa jarrai dezaten lagundu; irakasleekin batera jardun lanean heziketa fisiko, musika, plastika eta matematika eskolen garapenean, eta elkarreraginezko taldeetan parte hartzen.
- Ijito ikasleek ikastetxeko jardueratan parte-hartzea bultzatu.
- Tutoreekin lankidetzan aritzea tutoretzan, hainbat tutoretza-saio antolatuta zenbait gai aintzat hartuta.
- Ijito familietara hurbiltzea, ikastetxearekiko harremanak errazte aldera.
- Familiak animatzea ikastetxeko jardueretan parte har dezaten.
- Ijito Herria ikusarazteko ekintzak antolatu ikastetxean: azaroaren 16aren inguruko jaiak (Ijito Herriaren eguna Euskal Autonomia Erkidegoan) eta apirilaren 8aren ingurukoak (Ijito Herriaren nazioarteko eguna), kulturen arteko jarduerak ikastetxean (jaiak, asteak, tailerrak...) edo ikasgelan, eta ijito erreferenteak hurbilaraztea.
- Jarduerak antolatzea jantokian eta jolas-garaian.
- Ikastetxeko proiektuetan lankide: kulturen arteko dinamizazioa, bizikidetzaren behatokia, batzorde mistoak eta ikasteko komunitateak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Emandako diru-kopuru osoa: 435.890,00 €. Hiru lurraldeetako aurrekontua agortu da.Araban elkarte batek jaso du dirulaguntza.Bizkaian bi elkartek jaso dute dirulaguntza.Gipuzkoan elkarte batek jaso du dirulaguntza.

Zentro edo ikastetxe bakoitzean, jasotako ebaluazioetan, aurrerapenak ikusten dira ondorengo alderdiotakoren batean:

- Ikastetxe-familia harreman errazagoak
- Ikastetxeko elkarbizitza hobetzea
- Ijito ikasleen errendimendu akademikoa hobetzea
- Ikasle gehiagok lortzen du eskola-arrakasta.
- Eskoletara joatea hobetzea
- Puntualitatea hobetzea
- Lan-ohiturak hobetzea
- Higiene-ohiturak hobetzea
- Klaustroak erakundearen lana balioztatzea
- Familiak gehiago parte hartzea bileretan
- Familiak talde-jardueretara joatea
- Ikasleekin eta/edo haien familiekin diharduten zerbitzuen arteko lankidetza handiagoa
- Ijito ikasle gehiagok parte hartzea Bidelagunan
- Ijito kulturaren presentzia handiagoa ikastetxean
- Ijitoen eta ez-ijitoen arteko elkartze espontaneo gehiago
- Gatazken konponketa betegarriagoa izatea zerikusia duten alderdientzat

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Erakundeak | 4 | 4 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Laguntzak helduen hezkuntzako ikasleen elkarteentzat eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteentzat** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2019ko martxoaren 27koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteentzako eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteentzako laguntzak emateko, Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoak izan ezik (L1 Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza). |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/04/1902048e.shtml<br>Emate-erabakia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/02/2000709e.shtml |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| EAEko hezkuntza-sistemarentzat ezinbestekoa da bertan sartuta dauden gizarteko sektore guztien parte-hartzea eta haien guztien laguntza, ezarrita dituen helburuak lortuko baditu. Heziketa integrala lortzeko, irakaskuntza arautuak behar-beharrezkoa du jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko ekintzak gauzatzea. Eta hori parte-hartzearekin bakarrik lortzen da, hala helduen hezkuntzako ikasleenarekin nola adin txikiko ikasleen gurasoenarekin, indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera eratutako elkarteen bitartez. Parte-hartze horrek, ordea, gastu handiak eragiten dizkiete legeak ezarritakoaren arabera eratutako erakunde guztiei, eta, beraz, sistema berak lagundu egin behar die partaidetza hori gauza dadin. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Deialdi honetarako, 500.000,00 € izendatu ziren. Aurrekontua agortu da. 2019ko deialdian, 498 laguntza eman zitzaizkien erkidegoko ikasleen guraso-elkarteei eta ikasle-elkarteei. Ikasleen gurasoen eta ikasleen 498 elkarte horietatik, 99 izan ziren Arabako ikasleen gurasoen eta ikasleen elkarteentzat, 238 Bizkaikoentzat, eta 161 Gipuzkoakoentzat. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Elkarteak | 515 | 498 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Laguntzak unibertsitateaz besteko ikastetxeak euren titularitatearen pean dituzten irakaskuntza-kooperatibentzat** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2019ko apirilaren 19koa, Hezkuntzako sailburuarena, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibentzako dirulaguntzen deialdia egiten duena (IE 1 Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza). |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902601e.shtml<br>Emate-erabakia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/11/1905237e.shtml |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Indarreko legeriaren esparruan, kooperatiba-erregimenean eratutako ikastetxeei arreta berezia eskaintzen zaie, gizarte-interesa baitute. Ondorioz, Hezkuntza Sailak arrazoizko ikusten du aurrekontu-mugen barruan laguntzea Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz besteko mailetako ikasleentzako hezkuntza-jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak abiarazten. Jarduera horiek ikasleen gurasoek antolatuko dituzte, irakaskuntza-kooperatibetan bilduta eta behar den erregistroan hala inskribatuta. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Deialdi honetarako, 33.000,00 € izendatu ziren, guztira. Aurrekontua agortu da. 2019ko deialdian, 31 laguntza eman zitzaizkien erkidegoko irakaskuntza-kooperatibei. Irakaskuntza-kooperatiba horietatik, 2 izan ziren Arabako Irakaskuntza-kooperatibentzat, 16 Bizkaikoentzat, eta 13 Gipuzkoakoentzat.<br><br>EBAZPENA, 2019ko urriaren 28koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, unibertsitateaz besteko irakaskuntza-kooperatibei dirulaguntzak emateko dena. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Elkarteak | 50 | 31 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laguntzak unibertsitatez besteko ikasleen guraso-elkarteen federazio eta konfederazioentzat**

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko ekainaren 12koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteen federazio eta konfederazioei bideratutako laguntzen deialdia (IE1. Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1903080e.shtml
Emate-erabakia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/01/2000367e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Sailaren politikan, ikasleen guraso-elkarteen federazioak eta konfederazioak funtsezko elementu dira gurasoen parte-hartzea garatu eta sustatzeko; hain zuzen ere, guraso-elkarteen eskumena eta ekimena iristen ez diren mailetan. Federazioak ikasleen guraso-elkarteen arteko bilgune izaki, eta konfederazioak federazioena, interes berberekin guztiak ere, elkarte horiek bultzatutako proiektuak garatzea garrantzizko elementu bat da Hezkuntza Sailaren hezkuntza-helburuak lortzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019an deialdi honetarako, 350.000,00 € izendatu ziren, guztira. Aurrekontua agortu da. 2019ko deialdian, 12 laguntza eman zitzaizkien erkidegoko guraso-elkarteen Federazioei eta Konfederazioei. 15 laguntza horietatik, 3 izan ziren Arabako Federazio eta Konfederazioentzat, 6 Bizkaikoentzat, eta 3 Gipuzkoakoentzat.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Federazioak eta Konfederazioak | 15 | 12 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Laguntzak EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxeentzat, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarduera-proiektuak egin ditzaten, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2019ko maiatzaren 8koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dei egiten bai¬tzaie EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxeei, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarduera-proiektuak egitea eskatzeko, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetarako (L2 Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren arreta). |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902341e.shtml<br>Emate-erabakia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/11/1905080e.shtml |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Genero-indarkeria da sexismoan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-ezean oinarritutako sistema baten ondorio larriena. Eskolak ikasleen arteko botere-harremanak aldatzen lagundu dezake, behar diren aldaketak eginez, berdintasunean oinarritutako harremanen bidezko sozializazioa ziurtatzeko. Sozializazio horrek identitate-aniztasuna errespetatu behar du, eta ikasle guztien garapen pertsonala ahalbidetu, nola neskena, hala mutilena.<br><br>Hezkuntza Sailak eskola-eredu mistotik hezkidetzailera igarotzeko eraldaketa-prozesua sustatu nahi du, genero-indarkeria eta sexismoan oinarritutako indarkeria-adierazpen oro prebenitzen lagunduko duena. Horretarako, “Hezkuntza Sisteman Hezkidetza eta Genero Indarkeriaren Prebentzioa Lantzeko Gida Plana” egin du sailak. Hau dugu planaren helburuetako bat: ikastetxeek beren kulturan, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatzea, eskola-komunitateko eragile guztien laguntzaz. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Deialdi honetarako, 100.000,00 € izendatu ziren, guztira. Aurrekontua ez da agortu. 2019-2020 deialdian 45 itunpeko ikastetxe hautatu ziren, jarduera-proiektuak egin ditzaten, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetan. 90.000,00 € esleitu dira, 2.000,00 € ikastetxe bakoitzeko. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikastetxe itunpekoak | 50 | 45 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Laguntzak Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoei parte har dezaten baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko Sare_Hezkuntza gelan izeneko berrikuntza-proiektuan** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2019ko maiatzaren 8koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dei egiten zaie itunpeko sareko ikastetxeei eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten erakundeei eta federazioei, baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko Sare_Hezkuntza Gelan izeneko berrikuntzako proiektuan parte har dezaten, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetan. (L4. Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak). |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902342e.shtml<br>Emate-erabakia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/11/1905099e.shtml |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Gizartean izandako aldaketa eta aurrerapenek eta gizartearen eskura jarri diren baliabide digitalek ekarri dute hezkuntzaren alorrean ere sartzea gizarteak berak ohiko jarduera guztietan erabiltzen dituen bitarteko berriak. Hainbat programaren bidez sartu dira pixkanaka IKTak gure ikastetxeetan; esaterako, Eskola 2.0.ren bidez. Une honetan, sare eta gailu digitalak erabili nahi dira aldaketa pedagogikoa zein metodologikoa sustatzeko. Baliabide teknologikoen erabilerak ikasketa-erritmo desberdinetara egokitzen laguntzen du, berdinen arteko ikasketa bultzatzen, ikasten ikasteko gaitasuna indartzen eta gelaren espazio fisiko eta denborazkoa zabaltzen ikasketarako ingurune birtual eta nonahikora. Horrez gain, hezkuntza-plataforma digitalen bidez, ikasgela kanpoaldera zabaltzen da eta ikasleek eta haien familiek edozein unetan izan ditzakete baliabide gehiago, eduki analogikoen mende soilik zertan egon gabe. Horri guztiari bide emateko, pixkanaka hurbildu beharra dago baliabide digitalen errealitate berrira (baliabide metodologikoak eta tresnak) irakasteko eta ikasteko prozesuan.<br><br>Ikastetxeei bultzada eman nahi zaie zenbait proposamen pedagogiko esplora ditzaten eta garatzen jarrai dezaten, eta, alde horretatik, 174/2012 Dekretua da proposamen horien oinarrietako bat. Ikastetxeetako teknologia-heldutasuneko eredua zehazten du dekretu horrek, eta titulartasun publiko nahiz pribatuko zentroetan aplikatzen da.<br><br>Gaitasun digitalen esparrua oso dinamikoa da, eta, beraz, ikastetxe aitzindariak bultzatu, lagundu eta ikusarazteko unea da orain, eta Sare_Hezkuntza izeneko lehendabiziko ikastetxe-sarea sortzeko, eta, |

| |
|---|
| horrela, sare horren bilakaera eredu bihurtu eta beste ikastetxe batzuei hobetzeko bideak erakutsi ahal izateko.<br><br>Ikasketarako eta jakintzarako teknologiak erabiltzeko, beharrezkoa da hezkuntza-baliabide digitalak bilatu, hautatu eta erabiltzea; dagokion ikasturteko programazio didaktikoa osatzen duten ikasketa-jarduerak aurrera eramatea erraztuko duten baliabide digitalak, hain zuzen. Proiektu honek eskatzen du ikasleekin egiten diren hezkuntza-prozesuak aldatzea. Horretarako, Ikasketarako eta Jakintzarako teknologiak jarriko dira ikastetxeen eskura, baliabide horiek erabil ditzaten. Eta horren osagarri, irakasleak prestatzeko zenbait jarduera egingo dira, banaka zein taldean, teknologia horiek erabiltzeko eta curriculumean ezartzeko beharrezkoak diren ezaguerak eta trebetasunak eskura ditzaten. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Deialdi honetarako, 300.000 euro izendatu ziren, guztira. Aurrekontua ez da agortu. 2019-2020 deialdian 35 ikastetxe hautatu ziren. Hauek honela banatzen dira: 2 erakunde edo federazio eta ikastetxe 5 bakarka. Eta 253.972,10 € esleitu ziren. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikastetxe itunpekoak | 50 | 35 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Ikasle etorkinentzat kulturartekotasuna sustatzeko programak eta ikasle sartu berrien hizkuntza sendotzeko programak garatzeko dirulaguntzak** |

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko azaroaren 28koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, diru-laguntzetarako deialdi bat egiten da, ikasle etorkinentzat kulturartekotasuna sustatzeko programak eta ikasle hasi berrien hizkuntza indartzeko programak garatzeko (L2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunerako arreta) (EHAA 2018/12/18).

Ezohiko deialdia: AGINDUA, 2019ko irailaren 10ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez aparteko dirulaguntzetarako deialdia egiten baita, iritsi berri diren ikasleak hizkuntzan murgiltzeko programak hobetzeko. (2H. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunerako arreta). (EHAA 2019/09/24)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Ohiko deialdia:
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2018006173&BOPV_HIDE_CALENDAR=true

Ezohiko deialdia:
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019004321&BOPV_HIDE_CALENDAR=true

Emate-erabakia - Ohiko deialdia: Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan:
https://www.euskadi.eus/contenidos/resolucion_definitiva/res_2019_000_1048503/eu_def/adjuntos/resolucion_programa_especifico_apoyo_19_20_bilingue_con_anexos.pdf

Emate-erabakia - Ezohiko deialdia: Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan:
https://www.euskadi.eus/contenidos/resolucion_definitiva/res_2019_000_1048503/eu_def/adjuntos/resolucion_programa_especifico_apoyo_19_20_bilingue_con_anexos.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ohiko deialdia:
Ondoko helburuak dituzten diru-laguntzetarako oinarriak ezarri eta deialdia egitea: Ikastetxeetan kulturartekotasunaren ikuspegia koordinatzea, eta ikasle sartu berrien –EAEko hizkuntza ofizialak jakiteari dagokionez komunikatzeko zailtasunak dituztenen– artean hizkuntza indartzeko programak gauzatzea, betiere 2018-2019 ikasturtean zehar beharrezkoa bada hizkuntza indartzeko plan bat.

Deialdi honen onuradun izan daiteke honako ikastetxe pribatuak: Lehen Hezkuntza, edo/eta Bigarren Hezkuntzak unitate itunduak dituztenak eta, halaber, udalaren titulartasuneko ikastetxe pribatuak, Oinarrizko Lanbide Heziketa ematearren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailetik diru-laguntzak jasotzen dituztenak, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturik badaude eta 7. artikuluan zehaztu jarduerak –diruz lagun daitezkeenak– burutzen badituzte.

Honako hauek lagun daitezke diruz:

a) Linea bateko edo gehiagoko lehen hezkuntzako edo/eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako hezkuntza-itunen ikastetxe titularretan, kultuartekotasuna sustatzeko programak prestatu, zuzendu eta kudeatzeko burututako jarduerak; nolanahi ere, eskabideak egiteko epea amaitzen denean 6 urtetik 16 urtera bitarteko ikasleen matrikulan, etorkinen portzentajea % 17tik gorako bada; kanpoan geratzen direlarik hiru urtetan edo luzaroago baliabide hori erabili dutenak.
b) Berrikitan sartu diren ikasleen hizkuntza indartzeko ekintzekin osatutako jarduerak.

Ezohiko deialdia:

Aparteko dirulaguntzen xedea da iritsi berri diren ikasleak hizkuntzan murgiltzeko programak garatzeko. Programa horien bidez, komunikatzeko nahikoa gaitasun eman nahi zaie iritsi berri diren ikasleei; hasiera batean ikastetxean harremanak izan ahal ditzaten, eta, ondoren, inklusioa eta eskolako arrakasta lortzeko behar adina gaitasun izan dezaten hizkuntzan komunikatzeko 2019-2020 ikasturtean.

Hizkuntzan murgiltzeko programaren hartzaileak hauek izango dira: gure hezkuntza-sistemara iritsi berri diren ikasleak (azken 2 ikasturteetan), Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailan nahiz Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailan egon eta eskolako hizkuntzak (euskara eta gaztelania) ikasteko premia dutenak.

Diruz lagundu daitezkeen jardueren tipologia:

a) Irakasleen prestakuntza. Hizkuntza indartzeko irakasleei prestakuntza ematea, iritsi berri diren ikasleekin esku-hartze intentsiboko eredu berri bat sortzeko, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko A2 maila lortzen dela bermatzeko.
b) Ikasleekiko jarduerak. Hizkuntzan murgiltzeko gela bat abian jartzea.

Deialdi honen onuradun izan litezke Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako zenbait ikastetxe pribatu, baldin eta Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Oinarrizko Lanbide Heziketan itundutako unitateak badituzte.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Ohiko deialdia:Emandako diru-kopuru osoa1.689.564,00 €. Guztira, ikastetxe batek kulturartekotasuna sustatzeko dirulaguntza jaso zuen eta 113 ikastetxek ikasle sartu berrien hizkuntza sendotzeko programak garatzeko dirulaguntza jaso zuten. 1.931 ikasle sartu berriri eman zaie arreta.<br><br>Aurrekontua ez zen agortu (1.698.000,00€). Dirulaguntza eskatu eta deialdiak eskatutako baldintzak betetzen zituzten ikastetxe guztiek jaso zuten dirulaguntza.<br><br>Ezohiko deialdia: Emandako diru-kopuru osoa: 134.652,75 €, hau da, aurrekontua (150.000 €) ez da agortu egin. 5 ikastetxek jaso dute dirua, hau da, baldintzak bete zituzten ikastetxe guztiek. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ohiko dirulaguntza: | | |
| Itunpeko sareko errefortzu-kopurua: | 105 | 113 |
| Ikastetxearen kultura arteko ikuspegiaren koordinatzaileak: | 0 | 0 |
| Ezohiko dirulaguntza: | | |
| Dirulaguntza jasotzen duten ikastetxe-kopurua | 10 | 5 |

1- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Musika-ikastegientzako diru-laguntzak** |

2.- Araua

Laguntza-mota 1: 2.1 Udal musika eskolak:

AGINDUA, 2019ko azaroaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, udal-titulartasuneko musika-ikastegientzako dirulaguntzen deialdia egiten duena.

Laguntza-mota 2: 2.2 Musika eskola pribatuak:

AGINDUA, 2019ko azaroaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita musika-ikastegi pribatuei dirulaguntzak emateko

3.- Programaren araudia, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2019ko azaroaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, udal-titulartasuneko musika-ikastegientzako dirulaguntzen deialdia egiten duena

EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 21ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez udal musika-ikastegiei 2019ko dirulaguntzak ematen baitzaizkie, Udal musika-ikastegietarako dirulaguntzen deialdia egiten duen Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 26ko Aginduari jarraituz(Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoan argitaratua)

AGINDUA, 2019ko azaroaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita musika-ikastegi pribatuei dirulaguntzak emateko

EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 21ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez musikairakaskuntzak ematen dituzten ikastegi pribatuei 2019ko dirulaguntzak ematen baitzaizkie, musika-irakaskuntzak ematen dituzten ikastegi pribatuetarako diru-laguntzen deialdia egiten duen Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 26ko Aginduari jarraituz.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Bi deialdien helburua musika-irakaskuntzako ikastetxeen 2018-19 ikasturteko kostuak finantzatzen laguntzea da. Hauexek ditugu:

- Udal-titulartasuneko zentroak.
- Ikastetxe pribatuak, bai udalek aurrekontuen% 25ean edo gehiagotan finantzatutakoak, bai finantzatu gabekoak.

Honako hauek dira musika-irakaskuntzako zentroak:

- Udal-titulartasuneko kontserbatorioak
- Udal musika eskolak

- Titulartasun pribatuko musika-eskolak
- Zentro baimenduak

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Guztira, 90 ikastetxek aurkeztu dituzte eskabideak, eta horietatik:

- 43 udal-titulartasuneko zentroak dira (5 MKP eta 38 musika-eskola).
- 26 ikastetxe pribatu, udal-finantzaketa aurrekontuen% 25ekoa edo handiagoa dutenak
- Udal-finantzaketarik gabeko 21 ikastetxe (oinarrizko irakaskuntzak emateko baimena duten 5 ikastetxe, irakaskuntza profesionalak emateko baimena duten 5 ikastetxe eta 11 eskola pribatu).

Ikastetxe pribatuek 13.529 ikasle finantzatu dituzte guztira, prozesua ebazten laguntzen duen aplikazio informatikoak emandako datuen arabera: 13.044 arautu gabekoak eta 485 arautuak. Kopuru horiei udal musika-zentroen kopurua gehitu behar zaizkie: 23.108 ikasle (22.554 arautu gabekoak- 554 arautua); beraz, guztira 36.637 ikasle daude, ikasle kopuruari dagokionez ezarritako helburura gerturatuz.

Ikastetxeek aurkeztutako aurrekontuei eta jasotako finantzaketari dagokienez, honako hau esan daiteke:

**UDAL-TITULARTASUNEKO ZENTROAK**

Musika-eskola publikoek 43.627.019,60 euroko aurrekontua aurkeztu zuten, hau da, 1.371.631 euro gehiago 2018ko deialdiarekin alderatuz. Guztira 26127,43 ordu finantzatu ziren.

Ordua 356,50148 €/ orduko finantzatu zen. Guztira, 9.260.000 €-ko laguntzak eman ziren, hau da, 904.3000 € gehiago aurreko deialdiarekin alderatuta, eta lortutako batez besteko finantzaketa % 25,15ekoa izan zen (↑% 1.66).

2019ko deialdian, udal-titulartasuneko zentroei diruz lagundutako guztizkotik, honako hauek eman ziren:

- Musika-eskolei: 6.675.406,77 €
- MKP-ei: 2.584.593,23 €

Lurraldeka banatu ezkero, banaketa honakoa izan da:

- Araba: 859.189,00 €
- Gipuzkoa: 3.789.996,00 €
- Bizkaia 4.610.815,00 €

**UDALAK FINANTZATUTAKO ZENTRO PRIBATUAK**

Finantzaketa-irizpideak iazko berberak izan dira, eta, hala, laguntzen egonkortasuna lortu da.

1.745.544,08 euroko laguntzak eman ziren

Bataz besteko finantzaketa% 22,61ekoa izan zen (0,25 igo da aurreko urtearekin alderatuta), eta zentro bakar batek jaso du aurrekontuaren% 33ko laguntza.

**UDAL FINANTZAKETARIK GABEKO ZENTROAK:**

- Guztira, 271.586,98 euroko laguntzak eman ziren (2020ko maiatzak 21eko ebazpena).
- Batez besteko finantzaketa% 6,82koa izan zen, eta ikastetxe batek ere ez zuen jaso aurrekontuaren % 33ren pareko laguntzarik.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Udal eskolen batazbesteko finantzaketa | 20% | 25,15% |
| Eskola pribatuen batazbesteko finantzaketa | 15,15% | 14,75 % |
| Ikastegi kopurua | 94 | 90 |
| Irakasleak | 1.651 | 1.567 |
| Irakasleak ez direnak | 176 | 201 |
| Ikasle kopurua | 37.795 | 36.637 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2019-2020 ikasturterako laguntzak, zero eta hiru urte arteko umeentzako titulartasun pribatuko haur-eskolentzat**

2.- Araua

297/2002 DEKRETUA, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituena EHAA, 2002ko abenduaren 31).

215/2004 DEKRETUA, azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulu batzuk indarrean iraunarazten dituena. Azken Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan (EHAA, 2004ko azaroaren 19a).

AGINDUA, 2019ko azaroaren 13koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2019-2020 ikasturterako laguntzetarako deialdia egiten duena, zero eta hiru urte arteko umeentzako haur-eskolen titular diren toki-korporazioei (EHAA, 246. zk., 2019ko abenduaren 27a).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

297/2002 Dekretua: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2002/12/0207420e.shtml
215/2004 Dekretua: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2004/11/0405961e.shtml
Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/12/1905888e.pdf
Emate-erabakia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/04/2001776e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduaren helburua da 2019-2020 ikasturtean zero-hiru urte bitarteko haurrentzako udal-haur-eskolen kostuak murriztea eta egungo eskaintza sendotzea eta udal horiek eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren arteko hitzarmen baten bidez gauzatuko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdi honetan parte hartu dute abenduaren 17ko 297/2002 Dekretua indarrean jarri aurretik sortutako haur-eskolen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko 13 udalek, HaurreskolakPartzuergoan bat egin ez dutenek. Dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten plazen kopurua (2019ko otsailaren 8ko Ebazpena).

Laguntza jasotzeko eskubide izan duten plaza-kopurua (2019ko otsailaren 8ko ebazpena):

| | |
|---|---|
| 0 urte: | 197 |
| Urte 1: | 565 |

| | |
|---|---|
| 2 urte: | 387 |
| Guztira: | 1.149 |

Deialdiaren zenbatekoa 3.500.000,00 €koa izan zen. Ebazpena kantitate horretakoa izan zen, beharrezko izango ziren 3.503.399,58 € zenbatekoa %99.903an hainbanatu ondoren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikastetxe kopurua | 13 | 13 |
| Ikasleen kopurua | 1.166 | 1.149 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2019-20 ikasturterako laguntzak, zero eta hiru urte arteko umeentzako titulartasun pribatuko haur-eskolentzat**

2.- Araua

297/2002 DEKRETUA, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituena EHAA, 2002ko abenduaren 31).

215/2004 DEKRETUA, azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulu batzuk indarrean iraunarazten dituena. Azken Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan (EHAA, 222. zk., 2004ko azaroaren 19a).

AGINDUA, 2019ko urriaren 16koa, Hezkuntza sailburuarena, zeinaren bidez 2019-20 ikasturterako laguntzetarako deialdia egiten baita zero eta hiru urte arteko umeentzako titulartasun pribatuko haur-eskolentzat (EHAA, 218. zk., 2019ko azaroaren 15a).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

297/2002 Dekretua: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2002/12/0207420e.shtml
215/2004 Dekretua: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2004/11/0405961e.shtml
Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/11/1905282e.pdf
Emate-erabakia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/04/2001777e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzak emango dira zero eta hiru urte bitarteko umeentzako titulartasun pribatuko Haur-hezkuntzako lehenengo zikloko eskolei eusten laguntzeko, familien kuotak gutxitu eta homogeneizatzeko, familia eta lana uztartzeko zerbitzu bat eskaintzeko eta hezkuntzaren kalitatea hobetzeko. Izan ere, dagoen eskaintza sendotu nahi da, eta, beharrezkotzat joz gero, zabaldu, beti ere abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen plangintza-irizpideekin, Familia Planak adierazitakoa betez

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2020ko otsailaren 21eko ebazpenak laguntzak ematen ditu titulartasun pribatuko Haur-hezkuntzako lehenengo zikloko 277 ikastetxeei: 37 Araban, 149 Bizkaian eta 91 Gipuzkoan.

Laguntza jasotzeko eskubide izan duten plaza-kopurua:

| | |
|---|---|
| 0 urte: | 1.542 |
| Urte 1: | 3.722 |
| 2 urte: | 7.174 |
| Guztira: | 12.438 |

Deialdiaren zenbatekoa 26.595.744,68 €koa izan zen. 26.595.744,66 €-ko ebazpena eman zen, beharrezkoak izango ziren 28.591.455,54 €-ko zenbatekoa% 93,02an hainbanatu ondoren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikastetxe kopurua | 278 | 277 |
| Ikasleen kopurua | 13.700 | 12.438 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laguntzak ikastetxe pribatuentzat, lanbide heziketako heziketa zikloak eskaintza partzialean irakasteko**

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko apirilaren 2koa, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei 2019-2020 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialean irakasteko baimena eta, hala badagokio, dirulaguntza eska dezaten dei egiten diena eta horien finantzaketa arautzen.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Deialdiak:
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/04/1901870e.shtml

Emate-erabakiak:
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/07/1903469e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzak ikastetxe pribatuentzat, lanbide-heziketako heziketa-zikloak irakasteko, eskaintza partzialaren modalitatean.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdi honen bidez 11 ikastetxe pribatu lagundu ziren diruz honako heziketa-ziklo hauen lanbide-arloetako moduluen prestakuntza antolatzeko: Instalatze eta Mantentze Lanak, Informatika eta Komunikazioak, Osasungintza, Ostalaritza eta Turismoa, Administrazioa eta Kudeaketa, Gizarte- eta Kultura-Zerbitzuak, Fabrikazio Mekanikoa, Merkataritza eta Marketina, eta Jarduera Fisikoak eta Kirola. Lanbide-arlo hauek, laneratze-indizerik handiena duten lanbide-arloen artean aurkitzen dira.

Bete da aurrekontu-programaren aurreikuspena (Eskaintza Partzialeko 75 modulu eskaintzea ikastetxe pribatuetan), deialdi honen bidez, guztira, 87 modulu eskaini baitira. Eskainitako modulu guztietatik, deialdi honen bidez 56 finantzatu dira. Matrikulatutako ikasleen kopuruari dagokionez, guztira baimendutako modulu-kopuruarekin bat etorriz, 1.265 ikaslek egin dute matrikula; horrenbestez, 1.000 matrikula egiteko aurreikuspena ere gainditu da.

Deialdiaren aurrekontuko diru-hornidura 838.872,00 €-koa izan zen eta Ebazpena 834.176,00 €-koa izan zen (deialdiaren aurrekontuko diru-horniduraren % 99,44). Deialdiaren lehen ordainketa (%46,36), 2019an

gauzatua, 336.248,16 €-koa izan zen. Bigarren ordainketa (%53,64), 2020ko aurrekontuaren kontura gauzatuko da.

Deialdi hauen gizarte-eragina eskaintza partzial honen bidez helduen berariazko lanbide-heziketako ikasketak egiteko betekizunak malgutzean datza, lanbide-prestakuntza hobetu dezaketelako, hala dagokionean, dagokien titulua eskuratzea ahalbidetuz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikastetxe pribatutan eskainitako modulu kopurua | 75 | 87 |
| Ikastetxe pribatutan eskaintza partzialean matrikula-kopurua. | 1.000 | 1.265 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Dirulaguntzak lanbide-heziketa dualeko programak garatzeko ikas-ekinezko erregimenean, lanbide-heziketako heziketa-zikloak irakasten dituzten euskal autonomia erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2019ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, 2019-2020 ikasturtean lanbide-heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan ikas-ekinezko erregimenean lanbide-heziketa dualeko programak garatzeko dirulaguntzen deialdia egiten duena. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Deialdiak:<br>https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/08/1904047e.shtml<br><br>Emate-erabakiak:<br>https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/12/1905713e.shtml |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Agindu honen xedea da diru-laguntzak ematea honako jarduera hauei lotutako gastuak finantzatzeko: lanbide-heziketako titulua lortzeko helburuarekin, ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko ikasleei tutoretza emateko jarduerak. Ikas-ekinezko erregimenean ikastetxearen eta enpresaren artean 2019-2020 ikasturtean garatutako ikaskuntza-prozesuaren bitartez egingo da, eta Lanbide Heziketako sailburuordearen ebazpenaren bidez emandako baimena behar izango da. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Euskal Autonomia Erkidegoan 48 itunpeko ikastetxek jaso dituzte diru-laguntzak eta 20 lanbide-arlotan 936 ikaslek egin ahal izan dituzte heziketa dualeko proiektuak ikas-ekinezko erregimenean, Lanbide Heziketako titulua lortzeko, itunpeko ikastetxeetan.<br><br>Laguntzak 1.050.000 eurokoak izan dira guztira. Deialdiaren lehen ordainketa (%67,81), 2019an gauzatua, 548.277,43 eurokoa izan zen, hau da, lehen ordainketa egiteko erreserbatutako aurrekontu-zuzkiduraren % 77a gauzatu zen. Bigarren ordainketa, gainontzeko zenbatekoagatik (337.995 €), 2020ko aurrekontuaren kontura ordainduko da.<br><br>Hobekuntzak prestakuntza arautuko ikasleengan izango du eragina, etorkizunean laneratu daitezen, bai eta etengabeko prestakuntzako eta prestakuntza okupazionaleko programetan parte hartuko dutenengan ere. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Lanbide arloak | 21 | 20 |
| Parte hartzen duten ikasleen kopurua | 1.800 | 1.875 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **lanbide heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuen ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko dirulaguntzak** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2018ko abenduaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuen ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko 2018-2019ko ikasturteko dirulaguntzetarako. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806419e.shtml<br>Emate-erabakia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1903208e.shtml |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Deialdiaren xedea: ekipamendu eguneratu eta beharrezkoa erosteko edo errentan hartzeko finantzaketa, bai eta hortik eratorritako gastuen finantzaketa ere, curriculuma garatzeko orduan ikasteko metodo eta erreminta berritzaileak ezartzeko eta enplegurako prestakuntza-programak eta espezializazio profesionalerako programak zabaltzeko, agindu honetako I. eranskinean adierazitako heziketa-zikloetan. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Programatutako helburuak bete diren ebaluatzeko, behean adierazitako jarduera-adierazleen analisia egiten da. Lehen bi jarduera-adierazleekin, deialdian parte hartu dezaketen itunpeko ikastetxeen parte-hartzea altua izan dela ikus daiteke, eskatzaile guztiek diru-laguntza eskuratu dutelarik. Diruz-lagundutako ekipamenduek talde-kopuruan, ikasle-kopuruan eta prestakuntza–ekintzen kopuruan izan duten erabilera eta eransketa mailarekin loturiko azken hiru jarduera-adierazleei erreparatuz, ikus dezakegu ikastetxeen datu errealak jarduera-adierazleak ebaluatzeko erabilitako magnitudeak baino zerbait baxuagoak izan direla. Ekipamenduak erabiltzen dituzten talde-kopuruarekin lotutako jarduera-adierazlea % 96,30 bete da, ikasle-kopuruari dagokiona % 98,11 eta prestakuntza-ekintzei dagokiona % 89,5. Beraz, azken 3 jarduera-adierazle hauetan aurreikusitako betetze-mailaren helburua lortu ez den arren, diferentzia minimoa da.<br><br>Eskabide-kopuruari dagokionez, 37 eskaera aurkeztu dira, iazko deialdian baino 3 gehiago.<br><br>Deialdi honen xede diren ekipamenduak diruz laguntzeko zenbateko osoa milioi bat eurokoa (1.000.000) izan da, eta honen exekuzioa 993.118,18 eurokoa izan da (zenbateko osoaren %99,31). |

Dirulaguntza honek aukera ematen die ikastetxe onuradunei Lanbide Heziketaren Eredu Konbinatu berriarekin bat datozen inguruneak, tresnak eta ikasteko metodologiak ezartzeko beharrezko ekipamendua eskuratzeko, bai eta ikaskuntzaren, nazioartekotzearen eta etengabeko hobekuntzaren eremu estrategikoei lotutako proiektuak garatzeko ere. Ikaskuntza-eredu berriak ezartzeak prestakuntza-eskaintza motetan eta haren kalitatean eragin du, eta hori bat dator etengabe aldatzen ari den ekoizpen-sektore baten beharrekin; hala, Euskal Autonomia Erkidegoan lehiakortasuna eta enplegagarritasuna hobetu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Deialdian parte hartu duten ikastetxeen ehunekoa | 97 | 94,8 |
| Dirulaguntza lortzen duten Itunpeko ikastetxeen ehunekoa | 100 | 100 |
| Ekipamendua erabiltzen duten lanbide-familia araberako talde-kopurua | 351 | 338 |
| Ekipamendua erabiltzen duten heziketa zikloetan matrik. ikasle-kopurua | 7.313 | 7.175 |
| Ekipamendua erabiltzen duten enplegurako Lanbide-prestak. kopurua | 997 | 892 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Enpresako egonaldia luzatzeko bekak, lantokiko prestakuntzako modulua irailetik martxora bitartean egiten duten lanbide-heziketako ikasleentzat, 2019-2020ko ikasturtean** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2019ko irailaren 17koa, Hezkuntzako sailburuarena, enpresako egonaldi-beketarako deialdia egiten duena, lantokiko prestakuntzako modulua irailetik martxora bitartean egiten duten lanbide-heziketako ikasleentzat, 2019-2020ko ikasturtean. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/09/1904374e.shtml<br>Emate-erabakia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/01/2000126e.shtml |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da beketarako deialdia egitea, norgehiagokako araubideari jarraikiz, Lantokiko Prestakuntzako modulua irailetik martxora bitartean egiten duten eta 2020ko martxoan ebaluatzen den lanbide-heziketako ikasleen egonaldia luzatzeko, 2019-2020 ikasturtean.

Diruz laguntzen den enpresa-egonaldiak hilabetetik hiru hilera bitarteko iraupena du, eta lantokiko prestakuntzako modulua egin ondoren egiten da.

Deialdi honetan esleitzeko dagoen beka kopurua 650ekoa da, eta onuradun bakoitzak 1.800 € garbi jasoko ditu. Beka bakoitza Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorraren kotizazio-araubidearen mende dago.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deitutako 650 beketatik, Plangintza eta Antolaketako zuzendariaren 2019ko abenduaren 3ko Ebazpenean, 2019ko urtarrilaren 9ko ebazpenaren bidez aldatua, 208 beka eman ziren, honela banatuta:

- ARABAKO LH: 14 ikasle
- BIZKAIKO LH: 134 ikasle
- GIPUZKOAKO LH: 60 ikasle

Aurrekontuaren gauzatze mailari dagokionez, 2019ko aurrekontu-ekitaldian, lantokiko prestakuntza amaitu ondoren, bekaren guztizkoaren %80a (1440 euro/beka) eta abenduko Gizarte segurantza ordaindu dira, guztira 311.639,7 €. Gainerako %20a (360 euro/beka) 2020ko aurrekontuaren kontura ordainduko da.

Emandako beken kopurua handitu egin da 2018arekin alderatuz, beraz, Enplegu Planean zuzkidura ekonomikoari eusten bazaio, lanean jarraituko da onuradun izan daitekeen kolektiboa handitzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Deitutako beken kopurua | 650 | 208 |
| OLH | 130 | 14 |
| EMHZ | 325 | 80 |
| GMHZ | 195 | 114 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laguntza ekonomikoak lanbide heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten ikastetxeentzat, prestakuntza proiektuak egiteko**

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko apirilaren 2koa (EHAA, apirilaren 30ekoa), Hezkuntzako sailburuarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzako diru-laguntzen deialdia egiten duena, 2019-20 ikasturtean irakasleek prestakuntza-jarduerak gauzatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/04/1902049e.pdf

Ebazpena: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/07/1903424e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen bidez, lanbide-heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten 20 ikastetxeren prestakuntza-proiektuak lagundu ziren diruz eta 650 irakasle prestatu ziren.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdiaren aurrekontuko diru-hornidura 169.600,00 €koa izan zen eta Ebazpena 164.309,00 €koa izan zen (deialdiaren aurrekontuko diru-hornidurarren 96,88%). Programa honen bidez, Lanbide Heziketako 26 ikastetxe pribaturen prestakuntza-planetan oinarriturik, 65 prestakuntza-ekintza finantzatu ziren, gutxienez 10 irakaslekoak izan behar zirenak. Denera, 687 irakasle onuradun izan dituzte proiektuok. Beraz, aurreikusitako helburuak bete egin dira.

Agindu honen bidez diruz lagunduko diren ekintzek ikastetxe bakoitzean izendatutako irakasleen prestakuntza-premiei modu egokituan erantzuten diete.

Irakasleen prestakuntzak duen erabilgarritasuna eta inpaktu soziala Lanbide Heziketako ikasleek jasotako irakaskuntzaren kalitatean islatzen da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Irakasleen prestakuntza-proiektuen kopurua (ikastetxe pribatuak): | 20 | 26 |
| Prestatutako irakasle kopurua: | 650 | 687 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Laguntzak, bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak arautzeko uztailaren 23ko 118/2019 dekretuan aurreikusitakoak** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2019ko uztailaren 30ekoa (EHAA, irailaren 2koa), Hezkuntzako sailburuarena, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan aurreikusitako 2019 urteko diru-laguntzen deialdia egiten duena. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Deiladia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/09/1904065e.pdf<br>Emate-erabakia:<br>//www.euskadi.eus/contenidos/resolucion_definitiva/res_2019_000_0051207/eu_def/adjuntos/ebazpena%20def.pdf |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Bizitza osoko ikaskuntza-jarduerak sustatzea hiru modalitatetan: 55 urtetik gorako pertsonen eta baita prestakuntza- eta kualifikazio-maila txikia duten pertsonen autonomia eta parte-hartze soziala hobetzeko oinarrizko gaitasunei eta gaikuntzari loturiko prestakuntza-premiak betetzera bideratutako berariazko prestakuntza-jarduerak, ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak eta esperimentazio-proiektuak. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Deialdiaren aurrekontuko diru-hornidura 930.000,00 €koa izan zen eta Ebazpena 930.000,00 €koa izan zen (deialdiaren aurrekontuko diru-horniduraren 100 %). Guztira, 31 berariazko prestakuntza-jarduera, 17 ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzu eta 6 esperimentazio-proiektu lagundu dira diruz. Beraz, guztira 37 proiektu diruz lagundu dira. Onuradunak, guztira, 20 erakunde izan dira. Berariazko prestakuntza-ekintza horien onuradun, guztira, 876 pertsonak izan dira. Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuei dagokienez, gutxienez 30.000 biztanleko udalerrietan edo eskualdeetan gauzatuko dira, 5.500 lagun inguruko zerbitzu emanez. Esperimentazio-proiektuen bitartez 2.050 pertsonek onura izango dute. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Bizitza osoan ikasten jarraitzeko jarduketak garatuko dituzten proiektuen kopurua: | 20 | 31 |
| Erabiltzaile-kopurua: | 800 | 876 |
| Bizitza osoan ikasten jarraitzeko jarduketak garatuko dituzten proiektuen kopurua (ikaskuntzako bitartekaritza) | 15 | 17 |
| Erabiltzaile-kopurua: | 5.000 | 5.500 |
| Bizitza osoan ikasten jarraitzeko jarduketak garatuko dituzten proiektuen kopurua (esperimentazio-proiektuak) | 10 | 6 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Laguntzak ikaskuntzarako KA1 mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko, Lanbide Heziketaren eremuan, ERASMUS + programaren esparruaren barruan** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2019ko ekainaren 18koa, (ekainaren 27ko EHAA), Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, diru-laguntzetarako deialdia egiten da Lanbide Heziketaren eremuan ikaskuntzarako KA1 mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko, ERASMUS + programaren esparruaren barruan. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1903168e.pdf<br><br>Emate-erabakia:<br>https://www.euskadi.eus/contenidos/resolucion_definitiva/res_2019_000_0097408/eu_def/adjuntos/resolucion%20eusk.pdf |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Lanbide Heziketako Goi Mailako eta Erdi Mailako heziketa-zikloetako ikasleen eta irakasleentzako mugikortasun proiektuak diruz laguntzen dira. Mugikortasun proiektuen bidez ikasleek eta irakasleek prestakuntza-egonaldiak egiten dituzte Europa Batasuneko beste herrialdetan. Aurreikusitako helburuak entitate pribatuk bultzatutako 12 mugikortasun proiektuak batera finantzatzea eta horien bidez 575 mugikortasun egitea. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| 2019-20 ikasturteari dagokion deialdiaren aurrekontuko diru-hornidura 500.000,00 €koa izan zen eta Ebazpena 500.000,00 €koa izan zen (deialdiaren aurrekontuko diru-horniduraren 100%). Deialdi honen bidez Lanbide Heziketako Goi Mailako eta Erdi Mailako heziketa-zikloetako ikasle eta irakasleentzako 26 mugikortasun-proiektuak diruz lagundu ziren. Diru-laguntza horien onuradun zuzenak 573 Lanbide Heziketako ikasleak izan ziren eta 179 irakasleak (752 mugikortasun-egonaldiak).Lanbide Heziketako ikasleek atzerrian egiten duten prestakuntza-egonaldien bataz besteko luzapena 12 asteko (3 hilabete) izaten da.<br><br>Horretaz gain, Lanbide Heziketako ikasleen eta irakasleen mugikortasuneko beste7 proiektu aurrera eraman ziren, esandako deialdiaren kontura laguntzarik gabe, Europako funtsa nahikoa lortu zutelako, deialdiaren irizpideen arabera. Esandako 7 proiektu horien bidez 226 mugikortasunak egin dira. Horregatik, guztira 799 ikasle eta 179 irakasle (guztira 978 mugikortasunak) Europako mugikortasun bat lortu dute, ikastetxe pribatuek bultzatutako proiektuen bidez. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikastetxe edo entitate pribatuetako mugikortaseneko proiektu-kopurua: | 12 | 26 |
| Ikastetxe edo entitate pribatuetako mugikortasun kopurua: | 575 | 752 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Laguntza ekonomikoak heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatuei, 2018-19 ikasturtean zehar, atzerriko hizkuntza indartzeko, lanbide heziketako ikasleen artean** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2018ko irailaren 25oa, (Urriaren 3ko EHAA) Hezkuntzako sailburuarena, 2018-2019 ikasturtean zehar atzerriko hizkuntza indartzeko laguntzak deitzen dituena heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/10/1804817e.pdf<br>Emate-erabakia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/01/1900309e.pdf |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza programaren xedea heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatu eta udala titularra den ikastetxe publikoei diru-laguntzak arautzea da, atzerriko hizkuntza indartzeko programa gara dezaten 2018-2019 ikasturtean.

Esandako atzerriko hizkuntza indartzeko programaren bidez, Lanbide Heziketako heziketa-zikloetako ikasleei atzerriko hizkuntzako prestakuntza ematen zaie, ikastetxetan bertan, eskola-orduetatik kanpo, gutxienez 80 orduz eta gehienez 120 orduz, astean gutxienez 4 orduz eta gehienez 8 orduz.

Aurreikusitako helburua izan zen hizkuntza indartzeko programa duten 25 ikastetxe pribatuak diruz laguntzea da eta programan parte hartuko zuten ikasle-kopurua 550 izanik.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdiaren aurrekontuko diru-hornidura 146.250,00 €koa izan zen eta Ebazpena 77.700,00 €koa izan zen (dialdiaren aurrekontuko diru-horniduraren 53,12%).

Programa honen bidez, atzerriko Hizkuntza-prestakuntzako 23 talde diruz lagundu dira, 18 ikastetxe pribatuetan. Horrela Lanbide Heziketako heziketa-zikloetako 307 ikaslek jaso zuten atzerriko hizkuntzari buruzko prestakuntza, guztira 1.943 prestakuntza orduak izanik.

Lanbide Heziketako ikasleek atzerriko hizkuntzetan duten gaitasuna oso garrantzitsua da lanbideratzeari begira. Euskal Herriko enpresak nazioartekotze prozesuan ari dira murgiltzen gero eta sakonago eta, horren ondorioz, benetako lan egoeratan, atzerriko hizkuntza bat erabiliz, batez ere ingelesez, haien langileak komunikatzeko gauza izatea behar dute. Hildo beretik, ekainaren 28ko 4/2018 Legeak, Euskal Autonomia

Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzkoak, 28.3 artikuluan ezartzen duenez, lanbide-heziketako eleaniztasuna hiru eleko eredu batean zehaztuko da. Eredu horren barruan, lanbide-heziketako heziketa-zikloak bi hizkuntza ofizialetan eta atzerriko beste hizkuntza batean emango dira, eta lehentasunezkoa izango da ingelesa, eta helburua izango da ahozko eta idatzizko komunikaziorako oinarrizko gaitasun nahikoa lortzea kasuan kasuko lanbide-eremuan.

Hori dena kontuan hartuz gero, diru-laguntza programa honek duen eragina gizartean eta baliagarritasuna justifikatzen dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Programa parte hartzen duten ikastetxe pribatu-kopurua: | 25 | 18 |
| Programa parte hartzen duten ikastetxe pribatuetako ikasle-kopurua: | 550 | 307 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laguntza ekonomikoak heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatuei, Lanbide Heziketako V. Planean zehaztutako estrategiari jarraitzen dioten berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektuak egiteko, 2019-20 ikasturtean**

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko apirilaren 16koa, (Maiatzaren 6ko EHAA), Hezkuntzako sailburuarena, berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektuak egiteko diru-laguntzetarako deialdia egiten diena 2019-2020 ikasturtean Lanbide Heziketako V. Euskal Planean zehaztutako estrategiari jarraitzen dioten Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeei.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902101e.pdf
Emate-erabakia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/10/1904560e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza programaren helburua da itunpeko ikastetxe pribatuetako irakasleen liberazio osoa edo partziala finantzatzea, 2019-2020 ikasturtean Lanbide Heziketako V. Euskal Planari –lehentasunez– jarraitzen dioten berrikuntza-proiektuak egin ditzaten, eta, horrela, aldi berean, horietan ikasitakoak ikasleei, Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako gainerako zentroei eta enpresei, batik bat ETEei, helarazteko aukera ahalbidetu dadin.

Dirulaguntzak jaso ditzaketen proiektuen artean, hauekin lotuta daudenei emango zaie lehentasuna:

1) Fabrikazio aurreratua. Prozesuen hobekuntzarekin eta horien simulazioarekin lotuta daudenak. Neurketa-elementuak jasotzen dira, bereziki prozesuko neurketak. Material berriak sartzea, bereziki konposite eta material arinak, bai eta horien eraldaketa- eta lotze-prozesuak ere. Fabrikazio-prozesu berriak, hala nola fabrikazio aditiboa, diseinutik bertatik fabrikazio eta post-tratamendura arte.
2) Fabrika digital eta konektatua. Hauekin lotutakoak: ekipo industrialetan sortutako informazioaren konexioa, monitorizazioa, trazabilitatea, kudeaketa eta tratamendua. Hauek barnean direla: konektibitatea, zibersegurtasuna, Big Data datu-tratamendua eta erabakiak hartzea. Produktu edo ekipoei adimena (funtzionalitateak) emateko teknologiak barnean direla. Gauzen Internetekin edo Makinen Internetekin lotutakoak.
3) Energia-efizientzia. Energia-efizientziara eta energia-sorkuntzara bideratutako alderdiak. Bizitegi-sektorea sartzen bada ere, interes berezia jartzen da industria-prozesuetako energia-efizientzian eta sare adimendunen kudeaketan, eta, bereziki, energia-kontsumitzaile handietan.
4) Biozientziak eta nanozientziak. Bio eta nano soluzioen merkatuko aplikazio praktikoarekin lotutakoak. Bio-osasunean arreta berezia jarrita.

| |
|---|
| 5) Ekonomia jasangarria. Jasangarritasunarekin eta bioekonomiarekin lotutakoak. Arlo hauetara bideratuta: nekazaritza, elikagaien industriak, egurra eta altzariak, eraikuntza eta obra zibilak, eta itsasoa eta arrantza.<br>6) Errealitate birtuala/fusionatua. Ikaskuntza-prozesuan tresna horiek erabiltzearekin lotuta daudenak, enpresetara bideratutako zerbitzu- eta ezagutza-sortzaile gisa.<br>7) Osasuna 4.0. Hauekin lotutakoak: elektromedikuntza-ekipoen mantentze-lanak, eta teknologia eta baliabide teknologiko berriak sartzea osasunaren zaintzan. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Deialdiaren aurrekontuko diru-hornidura eta Ebazpena 770.000,00 €koa izan zen.<br>Programa honen bidez, berrikuntza- eta ekintzailetzako 27 proiektuak dizruz lagundu dira, zeinetan 18 ikastexte pribatuk parte hartu duten.<br><br>Lanbide Heziketako ikastetxeek sektore produktiboen –batez ere industriaren– premiei aurre hartzeko gai izan behar dute, produktu berriak, produkzio-prozesu berriak edo suspertzen ari diren sektoreetan jarduera berriak sortzeko aukerak modu proaktiboan identifikatzeko gai izanez, enpresen lehiakortasuna eta ikasleen enplegagarritasuna hobetzea ekarriko dutenak.<br><br>Diruz lagundutako proiektuen bidez irakasle-prestakuntza sendotzen duten proiektuetan parte har dezaten –prestakuntza horren xedea da ikaskuntza-ingurune gero eta espezializatu eta konplexuagoetara egokitutako gaitasunak eta metodoak garatzea–, lanbide-heziketaren partaidetza bultza dezaten enpresetan –bereziki ETEetan–, suspertzen ari diren sektoreetan lan egin dezaten giza kapitalaren espezializazioaren eta berrikuntza aplikatuaren bidez, lanbide-heziketako ikastegien partaidetza susta dezaten ingurune konplexuetan lan egiten duten enpresen espezializazio-maila hobetzeko –bereziki ETEena–. Beraz, diru-laguntza programa honek duen eragina gizartean eta baliagarritasuna justifikatzen dira. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| 1-Itunpeko ikastetxe-kopuru osoari dagokionez, berriztapen-proiektuak garatzeko diru-laguntzetarako deialdian parte hartu duten ikastetxeen ehunekoa: | %40 | %35,29 |
| 2.-Eskabide-kopuru osoari dagokionez, diru-laguntza lortzen duten itunpeko ikastetxeen ehunekoa: | %70 | %100 |
| 3.-Diruz lagundutako proiektu-kopuru osoari dagokionez garatuta dagoen ekimen batean txertatzen diren proiektuen ehunekoa: | %25 | % 21 |
| 4.-Diruz lagundutako proiektuen ondorioz lortutako produktuen ikastetxe-onuradunen kopurua: | 60 | 72 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laguntza ekonomikoak heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatuei, 2019-20 ikasturtean, Lanbide Heziketako V. Euskal Planaren barruan eremu estrategikoetako jarduera-ildoak garatzeko**

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko maiatzaren 7koa, (maiatzaren 22ko EHAA) Hezkuntzako sailburuarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzako diru-laguntzen deialdia egiteko dena, 2019-2020 ikasturtean Lanbide Heziketako V. Euskal Planaren barruan eremu estrategikoetako jarduera-ildoak gara ditzaten.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Deiladia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902425e.pdf
Emate-erabakia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/10/1904559e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza programaren helburua da irakasleen liberazio osoa edo partziala finantzatzea, 2019-2020 ikasturtean Lanbide Heziketako V. Euskal Planean estrategikotzat hartutako eremuak ezartzeko jarduerak garatzeko.

Diruz lagunduko diren ekintzak Lanbide Heziketako V. Euskal Plana ezartzeko lehentasunezkotzat jotako helburuak lortzera bideratutakoak izango dira, eta baita Lanbide Heziketako Sailburuordetzak xede horrekin bultzatutakoak izango direlarik.

Ondorengo jarduera-ildo hauek dira dirulaguntza programa honen helburua:
1.- Berrikuntza aplikatua
2.- Ikaskuntza 4.0 testuinguruan
3.- Elkarlaneko adimena eta malgutasun eraldatzailea
4.- Berrikuntza teknologikoa eta sistema adimendunak
5.- Biozientziak eta garapen jasangarria
6.- Kultura ekintzailea

Jarduera-ildo hauen bitartez, ikastetxeak adimen estrategikoaren eta ezagutzaren unitate autonomo eta malgu bihurtzen diren; era horretan, etengabeko eboluzioan ari den gizartearen eta ekoizpen-sektorea-ren –bereziki industrialaren– beharrak aurreikusteaz gain, produktu edo ekoizpen-prozesu berriak sortzeko aukerak modu proaktiboan identifikatu ere egin ditzakete, bai eta indarra hartzen ari diren sektoreetako jarduerak ere, euskal ekoizpen-ehunaren lehiakortasuna zein ikasleen enplegagarritasuna hobetu eta indartzearren.

Lehentasuna duten jarduera-ildoak ondorengo eremu estrategikoekin lotuta daude: Prestakuntza integratua, berrikuntza aplikatua, ekintzailetza aktiboa eta nazioartekotza.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdiaren aurrekontu-hornidura 1.817.000,00 €koa izan zen eta Ebazpena 1.777.580,00 € (deiladiaren aurrekontu diru-horniduraren %97,83).

Programa honen bidez, 137 ekintzak diruz-lagundu dira eta 32 itunpeko ikastetxe ezberdinek parte hartu dute (horietako batzuek, jarduera-ildo diferentekin lotutako ekintza bat baino gehiagotan parte hartu dutelarik).

Diruz lagundutako ekintzek, Lanbide Heziketako V.Planeko jarduera-ildoen eta eremu estrategikoen arabera, ondoko arlo hauetan lagundu dute:

- ETHAZI Errendimendu handiko zikloen eredua garatze eta hedatze-prozesuan, aktiboki laguntza emanez, ereduak eta materialak diseinatu eta garatzeko orduan, ikastetxean aldaketa metodologikorako proiektuaren buru izanez, eta ikaskuntza-koordinatzaileen bileretan eta sare-nodoetan modu aktiboan parte hartuz, ETHAZI errendimendu handiko zikloen eredua ezartzeko prozesuan parte hartuz, deialdian zehaztutako zikloan, eskakizun hauek betez: moduluarteko programazioa, zikloko irakasle-talde autogestionatua, antolamendu-malgutasuna eta SET ebaluazio-ikuspegia.
- Lanbide-heziketako sistemaren bikaintasuna laguntzea ikastetxeei laguntza emanez kudeaketa-sistemak mantentzen eta etengabe hobetzen.
- TKGUNE programa garatze eta hedatze-prozesuan, TKGUNE programaren bidez, berrikuntza aplikatutako proiektuak egiten dira, ETEkin batera, deialdiaren barnean ezarritako lanbide arloetan (Fabrikazio Mekanikoa, Automozioa, automatizazioa, sormen-industria, energia)
- Espezializazio-arloak garatzen. Besteak-beste, ondoko arlo hauek: Internet of Machines (IoM), Material konposatuak, automative technologies, Fabrikazio aditibo metalikoaren arloan (SLM), ingurune birtualak,…
- Lanbide-heziketako ikasleen eta ikasle ohien artean ekintzailetzari buruzko sentsibilizazio-ekintzak garatzea, Urratsbat metodologiari jarraituz prozesuaren fase guztietan (ideia - proiektua - enpresa).
- Lanbide Heziketarako pentsamendu eraikitzaileko eredua garatzen eta hedatzen laguntzea.

Azaldutako testuinguru honetan, Dirulaguntza programa honek duen eragina gizartean eta baliagarritasuna justifikatzen dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| 1.- Itunpeko ikastetxe-kopuru osoari dagokionez diru-laguntzetarako deiladian parte hartu duten ikastetxeen ehunekoa: | %50 | %74,50 |
| 2.- Eskabide-kopuru osoari dagokionez, Dirulaguntza lortzen duten itunpeko ikastetxeen ehunekoa. Magnitudea: | %90 | %97 |
| 3.- Jardueretan parte hartzen duten irakasle-kopurua. Magnitudea: | 90 | 121 |
| 4.- Diruz lagundutako proiektu-kopuru osoari dagokionez, gainerako lanbide-heziketako ikastetxeetara transferi eta ezar daitekeen produktu bat garatu duten jardueren ehunekoa: | %70 | %72 |
| 5.- Diruz lagundutako jardueren ondorioz lortutako produktuen ikastetxe-onuradunen kopurua: | 50 | 51 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Laguntza ekonomikoak lanbide heziketako Ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzeko, 2019-20 ikasturtean** |

2.- Araua

| |
|---|
| Agindua, 2019ko uztailaren 23koa, Hezkuntzako Sailburuarena, 2019-2020ko ikasturteko lanbide heziketako ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzeko laguntzen deialdia egiten duena. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/09/1904156e.pdf<br>Emate-erabakia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/11/1905461e.pdf |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Dirulaguntza hauen xedea da kultura ekintzailea sustatzea Erdi-mailako edo Goi-mailako heziketa-zikloko 2. maila egiten ari diren ikasleen artean, eta ikasgelan enpresa-simulazioko proiektu bat egiten ari diren ikasleen artean, 2019-2020ko ikasturtean, ikastetxe publikoetan zein ikastetxe pribatu itunpekoetan.<br><br>Enpresa-simulazioko proiektuak erabiltzen dira ikasteko tresna gisa, eta, horrela, ikasleek aukera dute hainbat konpetentzia garatzeko, pertsona profesional, enplegagarri, aktibo eta ekintzaile edo intraekintzaile izateko eta lan-merkatu aldakor eta ezegonkorrari aurre egiteko. Era berean, ikasleak sentsibilizatu ere egin daitezke, autoenplegua aukera gisa ikus dezaten.<br><br>Deialdia aurreikusten zituen diru-laguntzak 25 ikastetxetako 225 Lanbide Heziketako ikasleek enpresa-simulazio proiektuak egin ditzaten. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Deialdiaren aurrekontu-hornidura 200.000,00 €koa izan zen eta Ebazpena 106.124,01 € (deialdiaren aurrekontu diru-hornidurаren %53,06).<br><br>Enpresa-simulazioko 74 proiektu egiteko laguntza eman da. Guztira, 14 ikastetxetako 521 ikaslek parte hartu dute proiektu horietan. Laguntza ekonomikorik jaso ez zuten eskabideak aurkeztu zituzten gastuak deialdiko baldintzen arabera hautagarriak ez zirelako egin ziren.<br><br>Erabilgarritasuna eta inpaktu soziala honetan oinarritzen da: parte hartzen duten ikasleek gaitasun ekintzaileak eskuratzean eta eskuratutako ekintzailetza-esperientzian, autoenpleguaren aukerei eta zailtasunei buruzko ezagutza ematen baitie. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Parte hartzen duten ikastetxe-kopurua: | 25 | 14 |
| Onuradun ikasle-kopurua: | 225 | 521 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Laguntza ekonomikoak ikastetxe itunduetako lanbide heziketako irakasleak zientziaren eta teknologiaren arloetan egunean jartzeko, 2019ko urtean** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2019ko irailaren 10ekoa, (irailaren 17ko EHAA) Hezkuntza Sailarena, zeinaren bidez diru-laguntzak emateko deialdi bat egiten baita. diru-laguntza horiek ikastetxe itunduetako Lanbide Heziketako irakasleak zientziaren eta teknologiaren arloetan egunean jar daitezela sustatzeko dira, 2019ko ekitaldian enpresekin lankidetzan jardunez. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| Deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/09/1904224e.pdf<br>Emate-erabakia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/11/1905178e.pdf |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Helburuak:<br>1. Lanbide Heziketako irakasleak zientziaren eta teknologiaren arloetan egunean jartzea<br>2. Parte hartzen duten ikastetxeetako beste irakasleei eta ikasleei teknologiaren berrikuntza transferitzea<br><br>Ekintzak: Irakasleek enpresan behatzea bai produktuen bai ekoizpen-prozesuen garapena eta horietan enpresetako eguneko erronkak detektatzen dira. Gero, ikastetxearen eta enpresaren arteko berrikuntza-proposamen baten bidez ebazten saiatuko dira erronka horiek |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Deialdian Lanbide Heziketako heziketa-zikloak irakasten dituzten 15 itundutako ikastetxek parte hartu dute, 95 irakaslek eta 656 enpresek. Horren ondorioz, ikastetxe eta enpresen arteko 125 lankidetza-proiektuak egin dira eta horietatik 32 erronka ebaztu egin dira. Horrek suposatu ditu irasleen 3.059 lan-orduak, guztira.<br><br>Deialdiaren aurrekontu-hornidura 300.000,00 €koa izan zen eta Ebazpena 262.400,00 €koa (deialdiaren aurrekontu diru-horniduraren %87,46).<br><br>Programaren baliagarritasuna eta eragina gizartean ondoko arrazoi honetan datza: Lanbide Heziketako irakasleek izan behar duten produkzio-sektore bakoitzak izan eta izango dituen erronken eta gaitasun-beharren berri , orain eta etorkizunean. Eta ezagutza hori eguneratua izan beharko da beti, horrek baldintzatzen baitu ikasleek jasotzen duten prestakuntza. Horregatik, premiazko da Lanbide Heziketako |

irakasleek kontaktua izatea teknologikoki aitzindari diren enpresekin, irakasleek zientziaren eta teknologiaren arloan dituzten gaitasunak eguneratu ahal izateko.

Ikastetxe eta enpresaren lankidetzaren ondorioz, benetako erronken garapenaren bidez, teknologiaren arloan irakasleek lortzen duten ezagutza eguneratua, gero ikasleei eta baita espezialitate bereko irakasleei transferitzen zaie.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Parte hartzen duten ikastetxe-kopurua: | 25 | 15 |
| Ekintzetan zuzenean parte hartzen duten irakasle-kopurua: | 50 | 95 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Beka orokorrak, elbarrituentzako bekak eta bikaintasun akademikoko bekak** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2018ko uztailaren 3koa, Hezkuntzako sailburuarena, deialdia egiten duena 2018–2019 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko diru-laguntzetarako, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordain¬tzeko diru-laguntzetarako eta etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatesteko eta saritzeko bikaintasun akademikoko beketarako (2018ko uztailaren 10eko 132. EHAA).<br><br>EBAZPENA, 2019ko ekainaren 25ekoa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, zeinaren bidez handitzen baita agindu baten zenbatekoa; agindu horren bidez deialdia egin zen 2018-2019 ikasturtean unibertsitateko eta bestelako goi-mailako ikasketak egiteko diru-laguntzetarako, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko, eta etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatesteko eta saritzeko bikaintasun akademikoko beketarako. (2019ko uztailaren 2ko 125. EHAA).<br><br>AGINDUA, 2019ko uztailaren 2koa, Hezkuntzako sailburuarena, deialdia egiten duena 2019–2020 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko diru-laguntzetarako, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordain¬tzeko diru-laguntzetarako eta etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatesteko eta saritzeko bikaintasun akademikoko beketarako (2019ko uztailaren 11ko 131. EHAA). |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| 2018-2019 ikasturterako deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/07/1803573e.pdf<br><br>2018-2019 ikasturteko deialdiaren zenbatekoa handitzeko ebazpena: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/07/1903267e.pdf<br><br>2019-2020 ikasturterako deialdia: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/07/1903388e.pdf |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| – Beka orokorrak**:** Administrazio-egoitza Euskadin duten eta unibertsitate-ikasketak (unibertsitate-masterrak barne) eta unibertsitatekoak ez diren goi ikasketak autonomia-erkidego honetan edo estatuko beste edozeinetan egiten dituzten ikasleei zuzendutako ikasketetarako laguntzen unibertsitate-beken deialdia. Helburua da aukera-berdintasuna bermatzea unibertsitate-irakaskuntzara sartzeko, |

eskatzaileen errentaren eta egoeraren araberako zenbait laguntza-sistemaren bidez. Deialdiak beka eskuratzeko zenbait baldintza ekonomiko –errentari eta familia-ondareari dagokienez– eta akademiko ezartzen ditu.

- Elbarrituentzako bekak: ezgaitasunen bat duten unibertsitate-ikasleentzako garraio-laguntzaren bidez, helburua da unibertsitatera ezgaitasunen bat duten pertsonek berdintasunezko baldintzetan sartzea, garraio egokituaren kostu handia eragozpen erantsia izan gabe. Ezgaitasunen bat duten unibertsitate-ikasleentzako garraiorako laguntza eskuratzeko, mugikortasun urriko gutxieneko ehunekoa egiaztatu behar da, Foru Aldundiak ziurtatuta.
- Bikaintasun akademikoko bekak: Graduko ikasketak egiteko Autonomia Erkidego honen edo Estatuko gainontzeko lurraldeen eremuan kokatutako unibertsitateetan matrikulatuta dauden errendimendu akademiko handiko ikasleentzako bekak; ikasle hauek unibertsitate –beka orokorraren onuradunak izan behar dute.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

- Beka orokorra: 2018-2019 ikasturterako laguntzen deialdiaren azken emaitzak hauek dira:

| | |
|---|---|
| • Aurkeztutako eskaeren kopurua: | 19.533 |
| • Emandako beka-kopurua: | 11.575 |
| • Ukatutako eskaeren kopurua: | 7.958 |

Laguntza-kopurua, emandako beka-osagaien arabera:

| | |
|---|---|
| • Irakaskuntza-zerbitzuen prezio publikoak (matrikula) | 11.574 |
| • Material didaktikorako laguntza | 11.379 |
